

araba eta bizkaiko

bertsolari txapelketa, 87

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
-Partehartzaile eta puntuaketa	11
-Datu teknikoak	12
-Puntuaketaren azterketa	13
-Diru kontuak	18
-Liburua egiteko erizpideak	19
-Partiturak	22
Durangoko saioa	29
Gasteizko saioa	89
Finaleko saioa	155

HITZAURREA

1.ESKERRAK

ARABA ETA BIZKAIKO BERTSOLARI-TXAPELKETAren dokumentu idatzia izan gura duen liburu honen lehenengo berbak, Txapelketa hau posible egin dutenei eskerrak emateko izatea nahi dugu, hau da, bereziki, saioak egin diren herrietako bertsozaleei, antolaketa-arloan eman diguten laguntzagatik, herri horietako Udalei, lokalak eskeintzeagatik, eta Bizkaiko Ahaldundiari, Txapelketari bere babes eta laguntza ekonomikoa emateagatik.

2. ZERGATIKOA

Txapelketa hau, gerrate ondoan, Bizkaian, 1958tik 1966ra bitartean eta Euskaltzaindiak antolatuta, egindako zazpiekin zubia egiteko asmotan jaio zen, nahiz eta berau izan Araba eta Bizkaiko izenarekin egiten zen lehena, gaurregun, bertsolaritzaren esparru geografikoaren barruan, Euskal Herria lau zatitan banatzen delako, Gipuzkoa, Iparraldea eta Nafarroarekin batera Araba-Bizkaia izanik gure eskualdea. Beraz, Bizkaiko Txapelketa hutsak ez zukeen zentzu handirik izango.

Eskualdean egiten diren lehiaketok, hurbiltasunagatik, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiak ez duen etxekotasun eta gozotasuna dute. Haatik, Txapelketa hau ez zihoan inola ere Nagusiari konpetentzia edo egitera, alderantziz, honen helburuetariko bat, hurrengo Txapelketa Nagusiaren lehen atala izatea bait zen, hots, gure eskualdetik egin beharko den aukeraketa, Txapelketa honetan lorturiko puntuen arabera egitea.

3. ARAUAK

Ondoren datozen arauak, partehartu gura izan zutenen eta komunikabideen artean banaturikoak dira, eta heurretan hiru, gauza nabarmen daitezke.

Bat, puntuaketa bertso bakoitzari ematea eta ez ariketa desberdinetako bertso-bildumari, azken Txapelketa Nagusian egin zen moduan.

Bi, puntuazioa publikoa izatea, baina ez agerian erakutsita, baizik eta saioa amaitu ondoren nahi zuten guztien eskumenera utzita, berdin bertsolari, zale edo kazetari izan.

Eta hiru, Epaimahaia, bertsolariek heurek aukeratua izatea, antolakuntza-batzordeak eskeintzen zuen zerrenda luze batetatik hautatua. Sei epaile aukeratzeko, hamabosteko zerrenda aurkeztu zen, eta hautagai denek izan zuten boturen bat, beraz, zerrenda egokia izan zela esan dezakegu.

BALDINTZA OROKORRAK

1.-Txapelketa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren babespean egingo da, beraren helburua bikoitza izango delarik: batetik, aspaldi egiten zen Bizkaiko Txapelketari jarraiera ematea, eta bestetik, hurrengo Euskal Herriko Txapelketa Nagusirako, Araba-Bizkaiko ordezkarien aukeraketa egitea.

2.- Araba ala Bizkaian bizi edo jaio den 18 urtez gorako edonork partehar dezake txapelketa honetan.

3.- Saioak egunerdikoak izango dira, igande goizetan.

4.-Partehartu gura duten bertsolariek, 1987ko Irailaren 30a baino lehenago eman beharko dute izena, telefono hauetariko batetara deituz:

- 943-217798 Euskal Herriko Bertsolari Elkartea
- 94-6812586 Durangoko ikastola

BERTSO-SAIOAK ETA TOKIAK

- 5.- Kanporaketa eta Finalurreko saio bakoitzean partehartuko dutenen zerrendak, zozketa bidez egingo dira.
- 6.- Kanporaketa eta Finalurrekoetatik hurrengora pasatu behar dutenen zerrenda, bertsolarl bakoitzak eskuratutako puntuak kontutan izanik egingo da.
- 7.- Finaleko saioa, Bilboko Arraiga antzokian jokatu da, 1987ko Abenduaren 20an.
- 8.- Final honetara, Bizkaiko azken txapelduna den Jon Lopategi pasatuko da zuzenean, zortzikotea osatuko doten beste zazpiak, finalurrekoetan punturik gehien Lortu dutenik izango direlarik.
- 9.- Finalurrekoak Durangon eta Gasteizen jokatu dira, Abenduaren 6 eta 13an, eta zortzi bertsolarik hartuko du parte saio bakoitzean.
- 10.-Finalurreko hauetara, zuzenean, azken urteotan Euskal Herriko Bertsolari-Txapelketa Nagusiko finalean edo finalurrekoan partehartukoak joango dira, hau da, X. Amuriza, J. Enbelta, J. Azpillaga eta G. Larrañaga "Mañukorta ".
16 arterainoko beste bertsolariak, kanporaketetan klasifikatzen direnak izango dira.
- 11.-Kanporaketak, honako herri eta egun hauetan izango dira: Igorren Azaroaren 29an; Zornotzan Axaroaren 22an; Lekeition Azaroaren 15ean eta Bermeon Azaroaren 8an.
Guzti hau, izenematen dutenen kopuruaren arabera dago, zortzinakako inguruan izango duela kontutan izanik.

EPAIMAHAIA ETA PUNTUAZIOA

- 12.- Epaimahaia sei lagunek osotuko dute, eta partaideeri aukeraketa txapelketan partehartuko duten bertsolariek egingo dute.
- 13.- Puntuazioa: epaimahaikideek, bertsoka puntuatuko dute, eta saioaren azkenean emango da ezagutzera bertsolari bakoitzak eskuratu dituen punteen kopurua, beraz, saioan zehar, publikoari ez zaio puntuaketaren berri emango.
Haatik, saioa bukatu ondoren, edonoren esku egongo dira puntuazioekin burututako fitxak, nahi diren egiaztapenak egiteko.

BERTSO-SAIOETAKO LANA

- 14.- Kanporaketa-saioetan:
 - hiruna bertso ofizioan, zortziko nagusian
 - hiruna bertso ofizioan, zortziko txikian
 - bertso bana lau oinak emanda, zortziko txikian
 - bertso bana azken puntua emanda, zortziko nagusian
 - gartzelako lana:
 - bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
 - hiruna bertso neurrl librean, gaia emanda

Bi agurrak kontutan harturik, 1-Ona bertso kantatu beharko dute, hauetatik puntuatuko direnak agurrak ez beste 12ak izanik.

15.- Finalurreko saioetan:

- hiruna bertso ofizioan, zortziko txikian
 - hiruna bertso ofizioan, hamarreko nagusian
 - bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
 - bertso bana azken puntua emanda, hamarreko nagusian
 - gartzelako lana:
 - bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
 - hiruna bertso neurri librean, gaia emanda
- Kanporaketetan bezala, puntuatuko diren 12 bertso eta puntuatuko ez diren 2 agur, 14na bertso orotara.

16.- Finaleko saioan:

- hiruna bertso ofizioan, zortziko txikian
 - hiruna bertso ofizioan, zortziko nagusian
 - hiruna bertso ofizioan, hamarreko txikian
 - bina bertso sei puntu edo gehiagokoak, gaia emanda
 - gartzelako lana:
 - bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
 - hiruna bertso neurri librean, gaia emanda
- Puntuatzeko 15 bertso gehi 2 agur, 17na bertso guztira.

SARIAK ETA ANTOLAKUNTZA

17.- Sariak:

- Txapelduna: Txapela, 150.000 pta eta garaikurra
- Azpitxapelduna: 100.000 pta eta garaikurra

18.- Sarrerak

- Kanporaketetan, 200 pta
- Finalurrekoetan, 300 pta
- Finalean, 500 pta

19.- Antolakuntza

Txapelketa hau, Bizkaiko Foru Aldundiaren babes ekonomikopean egingo da.
Aretoak, Udal bakoitzak ipiniko ditu.
Antolakuntza, Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen Araba eta Bizkaiko eskualdeak eroango du aurrera.

4. PARTEHARTZAILEAK ETA PUNTUAKETA

Guztira 31 izan dira partehartu duten bertsolariak. Heuretarik bat, finalera pasatu zen artez, azken txapelduna izateagatik: Jon Lopategi. Beste 4, finalurrekoetara, azken urteotako Txapelketa Nagusietan finalera edo finalurrekoetara heltzeagatik: Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Jon Azpillaga eta Gregorio Larrañaga "Mañukorta". Eta beste 26ren artean 4 kanporaketa egin ziren, azpian datozen herri eta egunetan, lortutako puntuak ere bertan datozelarik.

BERME0 87-11-08

FAUSTINO ETXEBARRIA	346
HARITZ LOPATEGI	498,5
JON MUGARTEGI	484
JUAN MARI AREITIO	481,5
MOISES ENBEITA	481,5
ABEL ENBEITA	479

LEKEITIO 87-11-15

BASILIO PUJANA	406,6
JOSE M. ARANBARRI "BOTX"	345
JOSU ARRIOLA	516,5
JUANJO RESPALDIZA	445,5
JON ARRIZABALAGA	363,5
LIBORIO URRUTIA	370,5
PEDRO BIZKARGUENAGA "BIZKAR"	425
XALBADOR LAKA	432

ZORNOTZA 87-11-22

XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"	463
ANTON ARRIOLA	482,5
JOSE A. ARANBURU "NATXI"	424
JOSE L. ANAKABE	420,5
MANU ZILUAGA	390,5
RIKARDO GLEZ. DURANA	461

IGORRE 87-11-29

IRENEO AJURIA	509
JOSE I. GOENAGA "GORRI"	420
JOSE L. BASTARRETxea "ALTZALEI"	481,5
JOSE L. MUGERZA "ELGETZU"	492,5
SERAPIO LOPEZ	448,5
XABIER BIDABURU "TXIRRI"	404,5

5. DATU TEKNIKOAK

5.1. Epaimahaia

Bertsolari partehartzaileen zerrenda osatu eta gero, arauetan agintzen zena bete asmoz, bilera bat egin zen Durangoko Gurutziaga ikastolan, Epaimahaia osatuko zuten kideen aukeraketa egiteko. Antolatzaileek, bertso-munduko 18 epailegairen zerrenda bat aurkeztu eta handik, ondoko 6ak izan ziren aukeratuak: Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Abel Muniategi, Anton Mari Aldekoa-Otalora, Trino Azkoitia eta Eusebio Osa. Epaille hauek, saio guztietan egon ziren eta liburuan zehar datozen puntuaketak, hemen agertzen diren ordena berean daude emanak.

5.2. Aurkezlea eta idazkariak

Saio guztietako aurkezlea Bernardo Mandaluniz izan zen, eta saioetako aurkezpen hitzak, bereak dira. Idazkaritza lana, Andoni Iriondo eta Karlos Ibarzabalen artean bete zuten.

5.3. Gaijartzaileak

Hauexek izan ziren gaien arduradunak: Iñaki Sarriugarte, Trino Azkoitia, Bernardo Mandaluniz, Iñaki Beitia eta Karlos Ibarzabal.

5.4. Antolakuntza

Talde honen eskuetan egon zen:

Karlos Ibarzabal	(Gaiak, epaimahaia eta puntuaketak)
Juanjo Basterra	(Antolakuntza teknikoa eta Udalekiko harremanak)
Begoña Iturriza	(Administrazioa)
Koldo Tapia	(Publizitatea, komunikabideak eta erakundeekiko harremanak)
Joserra Bilbao	(Diru-kontuak eta erakundeekiko harremanak)

5.5. Argazkiak eta diseinua

Liburu honetan eta oroigarri moduan erabilitako albumean agertzen diren argazkiak Mikel Alonsorenak dira, eta publizitaren eta liburu honen azalaren diseinugilea, Paradox taldea.

5.6. Transkribapena eta doinuaren sailkapena

Zintetatik, liburuaren egiteko transkribapena eta doinuaren aukeraketa eta sailkapena, Begoña Iturrizak egin du.

6. PUNTUAKETAREN AZTERKETA

6.1. Zertarako

Denok dakigu epaile-lana diskutigarria dela eta zalantzan ipintzen dela sarritan. Hau dela eta, ez epaileen lana epaitzeko, baizik eta beraien kriterioen bateratzea ikusteko, ondoren datorren azterketa hau egin dugu.

Honek uste baino inportantzia handiagoa dauka, zeren honelako azterketa batek, hainbat aldiz eztabaidatutako bertsoaren beraren neurgarritasuna aztertzen duelako hau da, bertsoa neurtu daitekeen gafa den ala ez. Emandako puntuak oso ezberdinak balira, honek, epaileen erizpideak desberdinak duela edota bertsoa neurtzeko arazoak daudela erakutsiko luke. Aldiz, puntuaketak antzekoak balira, epaileen koordinazioa eta bertsoaren neurgarritasuna frogatuta geratuko litzateke hein handi batean.

Beraz irakurle, begira koadroak eta zeure ondorioak atera

6.2. Finaleko koadroaren argibideak "A" sailean: Bertsolari eta epaileen datuak.

Bertsolarien izena eta ordena; epaileen izena eta emandako puntuak.

Ondorioa: guztiok ezagutzen dugun emaitza ofiziala.

"B" sailean: Gehiena kenduta.

Bertsolari bakoitzari, punturik gehien eman dion epailearen puntuak kentzen dizkiogu, aldeotasun eta faboritismo posibleak baztertzeko. Ondorioa: ordena berean gelditzen dira bertsolari denak.

"B" sailean: Gutxiena kenduta.

Bertsolari bakoitzari, punturik gutxien eman dion epailearen puntuak kentzen dizkiogu, aurkakotasun posibleak baztertzeko.

Ondorioa: ordena berean gelditzen dira bertsolari denak.

"B" sailean: Gehiena eta gutxiena kenduta.

Batazbesteko edo erdi-ingurua aurkitzeko.

Ondorioa: ordena berean gelditzen dira bertsolari denak.

"C" sailean: Postuak hartuta.

Epaile bakoitzak bertsolariak zein postutan jarri zuen aztertzen da, puntuen diferentziaren eragina baztertzeko. Epaile batek bi bertsolari berdin baditu, erdiko postua ematen diegu biei.

Ondorioa: Epaileak banan bana hartuta ere, adostasun osoa agertzen da lehen bi postuetan, eta ia osoa besteetan.

"C" sailean: Metatua (MT).

Epaile bakoitzak emandako postu denak batuta ateratzen den zenbakia adierazten du.

Ondorioa: berriro ere, emaitza ofizialean irtendako ordena berean agertzen dira bertsolariak.

"D" sailean: Bertsoen puntuen batazbestekoa Bertsolari bakoitzak, bertsoz bertso atera zuen batazbesteko edo media jartzen da hemen.

Ondorioa: Puntuaketaren maila altuak, Finalaren maila zelakoa izan zen adierazten duela esatera ausartakoginateke.

6.3. Finalaurreetako koadroen azterketa

Hau ere eginda daukagu eta ondorioak finalakoaren oso antzekoak direnez gero, ez dugu uste hemen jartzea pena merezi duenik.

Dena den, norbaitek ikusi gura izango balu, antolatzaileengana jotzea baino ez luke izango.

FINALA
ARRIAGA (BILBO) 1987-XII-20
A SAILA

	BERTSOLARIA	EPAIMAHIA						GUZTIRA
		LUIS	IÑAKI	ABEL	A. M.	TRINO	OSA	
1	J. LOPATEGI	130,5	131,0	132,5	128,0	125,5	126,5	774,0
2	X, AMURIZA	123,0	123,0	121,5	119,5	118,0	117,0	722,0
3	J. ENBEITA	116,5	113,0	119,5	111,0	109,5	110,5	680,0
4	ELGETZU	114,0	107,0	113,5	111,5	108,5	108,5	663,0
5	J. AZPILLAGA	113,5	108,0	111,5	110,0	104,0	103,0	650,0
6	I. AJURIA	110,0	111,5	108,5	103,0	97,5	105,0	635,5
7	J. M. AREITIO	112,0	105,0	104,5	101,5	103,0	105,0	631,0
8	H. LOPATEGI	103 0	103 5	1015	95 0	99 0	99 0	601,0

B SAILA

	BEETSOLARIA	GEHIENA KENDUTA		GUTXIENA KENDUTA		BIAK KENDUTA	
1	J. LOPATEGI	641,5	1	648,5	1	516,0	1
2	X. AMURRA	599,0	2	605,0	2	482,0	2
3	J. ENBEITA	560,5	3	570,5	3	451,0	3
4	ELGETZU	549,0	4	556,0	4	442,0	4
5	J. AZPILLAGA	536,5	5	547,0	5	433,5	5
6	I. AJURIA	524,0	6	538,0	6	426,5	6
7	J. M. AREITIO	519,0	7	529,5	7	416,0	7
8	H. LOPATEGI	497,5	8	506,0	8	402,5	8

C SAILA

BERTSOLARIA		PUESTUAK HARTUTA							MEDIA	
		LUIS	IÑAKI	ABEL	A.M	TRINO	OSA	MT		
1	J. LOPATEGI	1	1	1	1	1	1	6	1	8,60
2	X. AMURRA	2	2	2	2	2	2	12	2	8,02
3	J. ENBEITA	3	3	3	4	3	3	19	3	7,55
4	ELGETZU	4	6	4	3	4	4	25	4	7,37
5	J. AZPILLAGA	5	5	5	5	5	7	32	5	7,22
6	I. AJURIA	7	4	6	6	8	5,5	36,5	6	7,06
7	J. M. AREITIO	6	7	7	7	6	5,5	38,5	7	7,01
8	H. LOPATEGI	8	8	8	8	7	8	47	8	6 67

7. DIRU-KONTUAK

7.1. SARRERAK

BIZKAIKO FORU AHALDUNDIA	2.700.000
UDALAK	362.000
Durango	50.000
Igorre.....	50.000
Bermeo.....	50.000
Bilbo	212.000
SAIOAK.....	1.148.400
INTERESAK	188
	<u>4.210.588</u>

7.2. IRTEERAK

BERTSOLARIAK	1.200.000
EPAILEAK	490.000
MEGAFONIA ETA GRABAKETA	680.000
PUBLIZITATEA	698.239
OROITGAIRRIAK	425.000
SAIOETAKO GASTUAK	72.889
FINALA: ARRIAGA	212.000
ANTOLAKUNTZA	418.678
	<u>4.196.806</u>

7.3. SUPERABITA

SARRERAK	4.210.588
IRTEERAK	4.196.806
	<u>13.782</u>

8. LIBUBUA EGITEKO ERABILITAKO ERIZPIDEAK

8.1. Ortografía

Ez da erraza izango, bertsoen transkribapena egiteko behin-betiko era aurkitzea.

Bertsoa ahoz egindako lana bada ere, liburu batetara pasatzerakoan, hizkuntza idatziaren neurrira makurtu beharra dago, eta honetan, "zenbat buru hainbat aburu", agertu izan dira gaur arte. Guk ere geure ahalegina gura izan dugu egin honetan, eta beste eritzi bat plazaratuko dugu, denon artean behinbetiko era finkoa zein den erabakitzen dugun bitartean (noizbait egin beharrekoa), eta liburu honen irakurleen ustearen menera jarri.

Hauexek dira gure erizpide nagusiak:

- ahal den neurrian, euskara batu edo standardaren idaztarauetara hurbiltzea.

- Orduan, denontzako ezagun diren laburpenak, hau da, erraz aurrikus daitezkenak, osorik idatzi.

Adibidez, **nai**, **len**, **zar** eta abar ahozkatzen denean, denok dakigu hegoaldeko baten ezpainetan **nahi**, **lehen** eta **zahar** direla, beraz, azken era honetan idatzi ditugu, irakurleak silaba bakartzat hartzenjakingo duelakoan. Berdin **nahastu**, **ahaztu** eta antzekoen kasuan.

- Berba egiterakoan laburtu, baina bertsoan egiterakoan batzutan ahozkaztu, eta, beste batzutan jan egiten diren bitarteko kontsonate bigunak (g, d, r, ...), laburtu egiten diren kasuetan, adierazi egiten ditugu, neurria gordetzeko oinarrizkoak bait dira.

Adibidez, **e'iten (egiten)**, **a'itu (aditu)**, **de'un (degun)**.

- Aldakuntza fonetikoak, **balda-bakea**, **kotxia-kotxea** bezalakoak, ez ditugu kontutan hartu, errima gordetzeko beharrezkoak direnak izan ezik.

- Gehien bat, esandako eran datoz berbak liburuan, euskalkiak errespetatuz, eta bizkaiera ezagutzen ez dutenentzat, arraroak gerta daitezkeen aditzerak edo laburdurak, azaldu egiten ditugu bazterrean.

Finalaren ostean, Bertsolari-Elkarteko Lehendakaria den Imanol Lazkanoren hitzak, berak esandako moduan datoz, gipuzkeraz.

8.2. Doinuak

Doinuen atalari oratzerakoan, zenbait argibide eman beharrean aurkitzen gara.

Liburu honen helburua Txapelketaren azken hiru saioen berri ematea zenez gero, doinu arloan ere ez dugu nahi izan esparru horretatik kanpora irten. Beraz, Durango, Gasteiz eta Bilboko saioak hartu ditugu kontuan lerro hauek idazterakoan.

Hiru saiootan zehar, guztira 50 doinu ezberdin erabili izan dira. Hauetatik 2 ditugu ezohizkoak, ezezagunak edo berriak: hirugarrena eta laugarrena hain zuzen. Guk geuk ez ditugu orain arte inon solfeoz idatzita ikusi eta horrexegatik ezarri ditugu.

Beste hiru doinuren partiturak ere ekarri ditugu. Lehenengoa eta bigarrena, oso ezagunak diren arren, izenik edo erreferentziarik gabe daude oraindik, guk dakigula behintzat, eta bertsozaleak doinuen hila alperreko burukominik har ez dezan, bertan jartzea erabaki dugu.

Bostgarren partitura "Mutil koskor bat itsu aurreko" delakoa da jatorriz, baina hamar puntutara luzatua. Gutxitan entzuten bada ere, ezin uka aparteko nortasuna duenik.

Doinu hauek alde batera utzirik, pasa gaitezen beste berrogeitabostetara

Dudarik gabe, betidanik izan ditugu zailtasunak bertso- doinuak izendatzerakoan. Zer izen jarri?, nola ezagutu?, eta batez ere, nota ezaguterazi?. Bertsolariek erraz konpontzen dute arazo hau mikrofono aurrean: konpas pare bat kantatu eta kitto. Baina, jakina, metodo hoiek ez dira baliagarriak liburuetarako.

Bestalde, azken urteotako txapelketen maiztasunak, bertsoliburuaren gorakadak eta doinuen ugaltze etengabeak, urrats erabakikor batzu ematera behartu du bertsolaritza bera.

Pausu horien ondorioz, hor ditugu gaur egun hain ezinbetekoak ditugun **Bertsotan I eta Bertsotan II** liburuak. Baita **Euskal Herriko Txapelketa. Nagusia 1986** liburuak dakarren sail oparoa ere.

Esan barik doa, liburu hau egiterakoan ere, ildo berari jarraitu diogula doinuak izendatzeko. Beraz, irakurle, doinuren bat ezagutzen ez baduzu, liburu hauetara jo beharko duzu argitasun bita.

8.3. Edukia

Azkenik, zera gura dugu azaldu, liburu honetan, Txapelketako azken hau saioak hartzen duela, Durangon eta Gasteizen, Abenduaren 6 eta 13an jokaturako Finalaurrekoak, eta Bilbon, 20an jokaturako Finala.

Saioen sarrera hitzak, Bernardo Mandaluniz aurkezlearenak dira.

Bertsoekin batera, azpikaldean, lortutako puntuazioa agertzen da, epaimahaikide bakoitzak emandakoa. Lehen esan bezala, puntuazio hau, mahaikideen zerrendan agertzen den ordena berean dator, beraz, norbaitek haietariko bakoitzak emandakoaren berri jakin gura izango balu, aukera izango du.

Azkenik, hitzaurre honen atzetik datozen partiturak, lehen esan bezala, aipaturako libiburuetan sailkatu gabekoak dira.

DURANGO

87-12-6

bertsolariak

**IRENEO AJURIA
JOSU ARRIOLA
JON AZPILLAGA
XABIER AMURIZA
JON ENBEITA
JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"
HARITZ LOPATEGI
ANTON ARRIOLA**

BERNARDO MANDALUNIZ

Urtean zehar erdi arraro diren euskaldun egun ederretariko baten aurrean gagoz Durango aldean, eta bere bihotz muinean ezin falta bertsolaria. Araba-Bizkaiko Bertsolari Txapelketa honen finalaurrekoetan, edo azken txanpan jarriak gara behin honezkero.

Gaurko honetan, eta suertearen poderioz, bertsolari mota bi dituzue zeuen aurrean: bertsolari haundiak batzuk, eta haundi izateko bidean direnak beste batzuk. Dena den, heuren neurriak esango dau bata eta besteak zer mailatakoak diran, eta zer mailatara heltzeko asmotan dagozan.

Hau ere suertearen gauza da: lehenengoa Irene Ajuria, Josu Arriola bigarrena. Haundietariko bat, Jon Azpillaga; danatik daukagu, baita txapeldunak ere: Xabier Amuriza. Jon Enbeita bostgarrena eta Jose Luis Mugerza "Elgetzu seigarrena; gaurkoan bere, seina, Haritz Lopategi, eta azkenik, Anton Arriola.

Bertsolariak bete behar daben lanaren aldetik, badira aldaketa txiki batzuk: lehenengo ofizioan. Orain arte zortziko nagusian kantatu izan daben ofizio horretan, hamarrekoan kantatuko dabe. Azken puntua hamarreko nagusian bete behar izango dabe eta beste dana berdintsu, hau da, zortziko txikian eta kartzelako lan horretan puntua emanda bertso bat eta gaia hiru bertsoz osatuz. Lau oinak bere aldatzen dira eta lau oinen ordeztu lehen puntua kantatuko dabe zortziko txikian bertsoa osa daiten.

Eta hemendik aurrera, heurak dira esan behar dabenak; betiko lez, agurragaz hasiko gara bertsolariei bide-emoten. Aurrera Irene Ajuria. Bertsolariak zutik.

AGURRAK

doinua: kantore berri xarmant batzuek

Ireneo Agur ta erdi Durango zuri
 hau degun giro pil-pila
 azterketa hau amaitu arte
 ez naiz geldiko trankila
 pentsatu honuntz etor naizela
 Bilborako txartel bila
 gaurko saioa entzule zure
 gustoko izan dadila. (bitan)

doinua: lehen detentzio gehiegiz geunden

Josu Arr. Egunon eta kaixo lagunak
 hastera goaz lanean
 sei gazte eta beste lau heldu
 bertso kantu afanean.
 Durangon lotu jaku gaurkoan
 Txapelketaren joanean
 ea leku bat aurkitzen dogun
 Arriagako trenean.

doinua: 1

Azpillaga Araba eta bizkaitarrentzat
 txapelketa da erori
 zaharren tartean gazte jatorrak
 oso edema da hori.
 Ongi etorri eta egunon
 azaldu zeratenori
 eta babes hau eskeintzegatik
 mila esker Durangori.

doinua: Espainian behera

Amuriza Txapelketako trena
arean arean
bartzartuta egon da
Bizkaiko aldean
martxan bota dauskue
halako batean
poto bat e'in bijuat* *egin behar joat
agurraz batean
ea gero saioan
libretan garean. (bitan)

doinua: 2

Jon Enb. Barriro ere alkatu gara
Txapelketaren harira
Araba eta Bizkaiko dema
azken pausutan ari da.
Jendea erruz hurbildu zaigu
bertsolarien ferira
buru belarri ari ditugu
guk zer esango begira
konforme nago dauden guztiak
pozik joaten badira.

doinua: 2

Elgetzu Beraz pоторik bukatu arte
gehiago ez bedi entzun
bestela dantzari jarri lezake
horrek hemen hainbat zentzun.
Alkatu gera gozatu nahian
Ezkurdin hainbeste lagun
porta gaitezen gu kantatuta
zuek humorez erantzun
saio eder bat eguerdi hontan
denok gozatu dezagun.

doinua: semea txapeldun

Haritz Hemen Durangon aurkitu dogu
giro gozo ta epela
bertsolariak oso gustora
kanta dezake honela
gaur gu zortzirok ahaleginduko
gara ahal dogun bezela
eta etorri zaren guztion
gogokoa izan daitela.

doinua: galderatxo bat egin didazu

Anton Arr: Durangon batzen da egunotan
Euskal Herriko kultura
Liburu eta Diska Azokak
badeko* bere lilura *badauka
baina nik beste azoka baten dekot jarrita
ardura
ea zer moduz saltzen dan gure (bitan)
Ahozko Literatura.

Literatura mota danak ditugu inguruan gaur. Baita Durangoko frontoia beteta bere. Gaur, orain arte bezala, epai-mahaikideak honeexek dituzue: Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Abel Muniategi, Anton Mari Aldekoa-Otalora, Trino Azkoitia eta Eusebio Osa. Orain arte bezala neurtu dezatela bertsoa.

HAMARREKO NAGUSIAN

HIRUNA BERTSO

IRENEO AJUMA ETA JOSU ARRIOLA

Gaia: Ireneo, zuk egoerak beharturik, atrako bat egitea erabaki dozu, eta bai egin bere, narruzko abrigoz jantzita datorren andre dotore bateri, "la bolsa o la vida" esan dautsazu. A zer sustoa zurea, Josu, emakumea, zeure emaztea dala konturatu zaranean.

doinua: sentimentua sartu zitzaidan

Ireneo Aspaldi hontan gaizki nenbilen
ilun nere ingurua
ta aukeratu gura nahi nuen
bide oso segurua
baina pentsatu nolakoa den
hartu dudan apurua
baina horregatik aurrera noa
burutik ez naiz erua
nik ez dot inor errespetatzen
eman zaidazu dirua. (bitan)

7-7-8-6,5-7-7

Josu Arr. Hainbeste kasu gertatu zaizkit
baina hau ez da makala
oinetaraino jetsi zait orain
buruan neban morala.
Kalean zehar hor nindoala
zuritu jata azula
nere senarra agertu eta
atrakadorea dala
neuk bezain ondo zeuk be dakizu
zotzik ere ez dudala. (bitan)

6,5-7,5-8-7,5-8-7,5

Ireneo Zotzik ez dezu, esaten zabiltz
baina ez jarri apala
nik ondo dakit sorgin antzeko
emakumea zarala
eta dirua eskatzen dizut
beste askori bezala
suberte ona espero nuen
eta gertatu da hala
orain badakit nora joaten zen
nere hileko jornala. (bitan)

7,5-7,5-8-7-7-8

Josu Arr. Berak ardotan gastatzen zuen
errudun naizela dino
gaur agertu da gure arteko
hainbat ta hainbat engaino
oso maiterik neukan aintzina
zein eguzki ta zein laino
nere senarra gorde pistola
ta goazen gu etxeraino
pobre zintzoa ez al da hobe
aberats lapurra baino? (bitan)

7,5-8-8-8-7-8

Ireneo Ni etxeruntza eraman nahia
berriz zure malezia
baina lezio hori daukat nik
antxinatik ikasia
atera naiz ni lapurtzera ta
poztutzen nago hasia
larruzko jantzi, kartera bete,
ez da gauza itsusia,
eman zaidazu daukazu dana
bestela akabo bizia. (bitan)

7-7-7-7-6-7

Josu Arr: Alperrik dira senarrarentzat
emaztean irrintziak
ikusi behar egoera honek
dituen hor garrantziak
gero norantza joango ote dira
utzitako herentziak?
ez da polita emazteari
bizia holan kentziak (sic)
gero bizitzen ez deutsu utziko
zeuk duzun kontzientziak. (bitan)

6-8-6,5-6,5-5-5,5

JON AZPILLAGA ETA XABIER AMURIZA

Gaia: Jon: zuri "paroan nago eta borondaterik bada" esan deutsu Xabier Amuriza, hogeitabost urteko mutil gazte honek.

doinua: aita izena kanta beharrak

Azpillaga Paroan dagon mutil gazte bat
etorri da neregana
hau da sinale bere bizitzan
problema asko daukana
bera oraindik mutil gaztea
ta zahartuta dauka ama
inguruetan somatutzen det
mutil formalaren fama
ta hortarako baldin bazagoz
nik emongo deutsut lana. (bitan)

7-8-7-7-8,5-7

Amuriza Gazte izanik, oso gazterik,
prolemak etorri jataz
zuk badakizu zelan nagoan
atez ate lanen faltaz
asteburuan gasturako be
aukera ederrak daukatzaz
zure eskeintza ez onartzeko
ez al naz izango kapaz
emon dirua, zeuk egin lana,
eta holan biok enpaz. (bitan)

7,5-7,5-8,5-8-8-8

Azpillaga Lanik gabea saltsan sartzen da
edo ta droga saltzera
kalerik kale hortxe zabilta
eskale baten antzera
nik lanbidea eskaintzen deutsut
ez zazu egin atzera
zeuretzat hobe eta poz ona
eamango dezu etxera
diru faltarik ez dezu izango
ondo portatzen bazera. (bitan)

7,5-7-7,5-7,5-8-7,6

Amurixa Nik banekian nora joan hau
kantuan hasi zenean
lana ta lana besterik ez da
lagunan almazenean
borondatea eskatu dautsut
paroaren izenengan
egon seguru zure dirua
doa bide zuzenean
zeure alabakin ezkonduko naz
aberasten nazenean. (bitan)

8-7,5-8-8,5-8-8

Azpillaga Gutxienean berakin dauka
hamar urteko karrera
alproja gisan ibilizeko
ez zinan sortu lurrera
nere alaba nahi ote duen
bere hurrengo harrera
neregandikan aparte zabiltz
etorri zaite hurrera
ilea moztu, bizarra kendu,
eta jarraitu aurrera. (bitan)

7-7,5-9-8,5-8,5-8

Amuriza Alperrekoa izango da gaur
Azpillagaz barriketa
ia ez dakit hanka egin edo
hartu neure eskupeta
honek nunbaiten lortua dauka
Haziendako karneta
besteri oindik burla egiten
berak etxea beteta
zelan moztukot* bizar ta ulea *moztuko
dot
dirurik ez daukat eta. (bitan)

7,5-7,5-8-8,5-8-9

JON ENBEITA ETA ELGETZU

Gaia: Jon, goizean lanera trenean zoazela, erretzaile porrokatu honen, Elgetzu honen alboan jezarri zara.

doinua: alta izena kanta beharrak

Jon Enb. Trenean sartu ta oso lasai
neure lanera nentorren
trenean behar kotxean ordez
dirua ez izatearren.
Nire ondoko laguna ere
nahiko urduri zetorren,
zigarroa du golpean biztu
ketan kanpo eta barren
zeurekin egin nahi dana baina
neu ez erre lagun arren. (bitan)

7-7-8-7-7-7,6

Elgetzu Kentzeko dio hori sanoa
zeharo gaur ez dala ta
belarrondoan goizean goiztik
ez egin haipbat zarata
lehen ni urduri ba nijoan be
hori bakarrik nun palta
zeure martxan zu joan zindezke
neri pakean lagata
sano ibili nahi badezu zuk
joan zindezke saltaka. (bitan)

6-6-7,5-7,5-7-7

Jon Enb. Bera heldu da molestutzen ta
neri pakea eskatu
lotsarik ez du sekula honek
bere etxean dastatu
amenazuak egiten dabil,
muturra nahi dit puskatu,
zeuretzat lagun nahi duzun dena
egin zenezake hautatu
baina mesedez inorena ere
egizu errespetatu. (bitan)

8-6,5-7-6,5-6,5-6,5

Elgetzu Bera ere ni pentsatzen nago
ote dagon narraztua
nun galdu ote du edo ez zuan
honek lotsa arrastua
goizean nago, gehiago jarri
nau honexek garraztua
eta ez diot horregatikan
leporatuko eskua
bestei erakuts nahi eta berak
falta du errespetua. (bitan)

6-6-7,5-8-8,5-6

Jon Enb. Asperturikan bizi naiz ia
tabako kontu honen gaiz
lanera ere ezin naiz joan
aurpegi ta barren alaiz
erabakia hartu beharko
gero ez damutzeko garaiz
era hontako buru gogorak
ondoratzen bait jakuz maiz
bera hemendik ez da joango
ta neu aldatu beharko naiz. (bitan)

6,5-6-7,5-7,5-7-7

Elgetzu Etsai txikien kontra daduzka
berorren borondateak
kezinguratuz pasatzen dina
egun guztiko parteak
kutsaduraren hondakinekin
itxas ta mendi tarteak
gure Herriak tubo-eskapen
ke zikinekin beteak
eta kezkatu ipintzen dau hau
zigarrotxo baten keak. (bitan)

7,5-8-9-8-7,5-7,6

HARITZ LOPATEGI ETA ANTON ARRIOLA

Gaia: Zuek biok ama-semeak zaree. Zuk Haritz, ama alarguna dan Antoni ezkontzari buruzko zure asmoak azaltzen deusazuz: ez zara ezkonduko ez Juzgaduz ez eta Elizaz bere, batu baino.

doinua: sentimentua sartu zitzaidan

Haritz Ama zuri hau esan nahiean
pasa izan dot eguna
geure herrian aurkitua dot
niretzat neska laguna
nirekin beti ondo dabil ta
nirekin beti biguna
nahiz eta eleiza horixe izan
guretzako ezaguna
maitasuna da neska-mutilak
ondoan batzen dituna. (bitan)

7-7,5-8-7-8-7

Anton Arr. Maitasun hori oso ona da
eta alboan ez laga
ai alabatxo gu alkarregaz
ederto konpontzen gara!
baina bide hortan ipini gura
deutsut oztopo ta traba
gure famili izen ederra
horregaz apurtzen bada
betiko ohitura izan danetik
ez zaite aparta alaba. (bitan)

6,5-6-6,5-6-7-6,5

Haritz Gu alkarrekin batuta gabiltz
urtebetean inguru
ta maitasuna hasieratik
gogo handiz daroagu
orain guk biok bat egitea
jarria dogu helburu
bion gogo hori da eta
zu ama egon seguru
bedeinkapenik ez dogu behar
alkar maitatzen badogu. (bitan)

8-7,6-7-8-8-8

Anton Arr. Arrimatzea nire ustean
da gauza oso itsusia
bide horretik ezin konpondu
atera jakun auzia
ni zaharra naiz ez da luzaro
izango dodan bizia
ikusten zaitut ene alaba
pekatuetan jausia
gure Jaungoiko guztiz ahaltsua
da danon juez nausia. (bitan)

8,6-7,5-6,5-8,5-7-8,5

Haritz Neure nobiaz pentsatzen nago
beti egun eta gaba
ezkondu barik batu nahi gara
ta mesedez, ama, laga.
Gero parejan joango gara
pozik hona eta hara
nahiz eta orain zuk ama jarri
hainbat oztopo ta traba
ilobatxo bat dakargunean
orduan poztuko zara. (bitan)

8-8-8-8-8,6-8

Anton Arr: Umerik ezin dozu ekarri
zure estadu horretan
gogoratzen naz ze'gun gozoak
zenituen zuk umetan!
ondino ere ene alaba
nik maite zaitut benetan
faltsukeria ta pekatua
dago gaur mundu honetan
hori egiten badozu ama
hil egingo da penetan. (bitan)

7-7-6,5-6-7,5-7

LEHEN ETA AZKEN

PUNTUA EMANDA

IRENEO AJURIA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Ikusi behar al dok
Liburu Azoka?
Ireneo sekula ez naiz izan
gauza horren kontra
batzuek jartzen dute
zeharo oztopa
bera goratzea da
gaur nere borroka.

6-6-6,5-6-7-6

Azken puntua Sua ondino bizirik dago
dana ez dago galduta.

doinua: aita izena kanta beharrak

Ireneo Promesa eta berba hutsakin
ia gaude aspertuta
Euskal Herriko gure giroa
dena daukagu txartuta.
Gure Herria eta Euskera
bi bihotz daude lehertuta
baina ondino asko egin leike
anaiak alkar hartuta
sua ondino bizirik dago
dana ez dago galduta. (bitan)

7-8-7-8-7,5-7,5

JOSU ARRIOLA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Beterik al daukazu
etxeko ganbara?

Josu Arr. hainbeste sagu txiki
heldu da bertara
katua ere lotan
egun eta gaba
laster handik kanpora
urten behar gara.

7,5-8,5-8-89-7

Azken puntua Alkartasuna beti izan da
gure armarik onena.

doinua: amodioa gauza tristea

Josu Arr: Gure Herriko egoera honek
ez al dau emoten pena?
ondo doala dinote eta
txarragora doa dena.
Baina halan be arazo hauxe
da konpondu litekena
banatu nahia dauka etsaiak
bere armarik txarrena
alkartasuna beti izan da
gure armarik onena.

6-5-7-7-7,5-7,5

JON AZPILLAGA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Eguzkia neguan
estimagarria

Azpillaga gaur ere goiko puntan
izan da jarria
kentzen digu guretzat
hotzaren larria
ea berotzen duen
gure Euskal Herria.

6,5-7,5-8-7,5-7,5-7

Azken puntua Etsai gaiztoen zitalkeria
oraindik ez da itzaldu

doinua: 2

Jon Azp. Urteak joan, urteak heldu
esperantzik ez da galdu
bata besteai bizkarra eman
eta etsaiak bialdu
Euskal Herriak urte hauetan
hain itxura ederra du!
gazte jatorrak ugari datoz
ez dago zertan makaldu
etsai gaiztoen zitalkeria
oraindik ez da itzaldu.

7-7-7,6-6,5-8-6

XABIER AMURIZA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Noiz irakurri duzu
azken liburua?
Amuriza hori da batzurentzat
halako zerua
nik lehen esan dot eskas
dodala dirua
nik hori irakurtzea
ez da segurua.

7-6,5-6,5-6,5-6,5

Azken puntua Udazkeneko iluntze hori
ez jat sekula ahaztuko.

doinua: mutil kozkor bat itsu aurreko

Amuriza Udazken edo udagoienak
aparteko xarma dauko
maitale batek arratsalde horri
ez leio egin inoiz uko
nik maitetxo bat ba nuen noski
frailletzan sartu orduko
horbelak jausi ta hantxe etzun
ez ginan gu gogaituko
udazkeneko iluntze hori
ez jat sekula ahaztuko.

9-9-9,5-8,5-9-9,5

JON ENBEITA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Sarrerarik badozu
zuk finalerako?

Jon Enb. gai jartzailea ez da
nire onerako
baina juezik hortik
ez bada kalteko
nere txartela dut gaur
pozik aterako.

7-6,5-9,5-7,5-6,5-6,5

Azken puntua Bertsoei esker euskaldundu da
gaurkoz pittin bat Durango.

doinua: bizia ez da nehoiz egoiten

Jon Enb. Hortikan zehar entzuten dira
rocka, jazz eta fandango
kultura onak ez direanik
gaur nik ez nuke esango
ona da danak ongi hartzea
berdin hemengo ta hango
baina geurea galdu ezker
onik ez dugu izango
bertsoei esker euskaldundu da
gaurkoz pittin bat Durango. (bitan)

9-8,5-9-9-8-8,5

JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Batzuk atzera eta
besteak aurrera

Elgetzu nork daki nun dagoan
gaur gure barrera?
Durangok egin digu
halako harrera
Arriagan bukatu
nahi det nik karrera.

7-7-8-8,5-8,5-7,5

Azken puntua Pausalekurik ezin aurkitu
nekatuta nago baina.

doinua: aita izena kanta beharrak

Elgetzu Alde batetik juradua ta
 hemen Bernardo itzaina
 burua nekez lehertu behar ta
 askatu ezin mingaina
 esperantza bat azkenak eman
 lezake gero ordaina
 horregatikan saiatu nahi det
 merezi dezuten aina
 pausalekurik ezin aurkitu
 nekatuta nago baina. (bitan)

6,5-6,5-8-8-7-7

HARITZ LOPATEGI

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Zer bazkalduko dozu
 gaur eguerdian?
Haritz hainbeste gauza dagoz
 Durangon ferian
 jateko ni ez nator
 itxura nagian
 baina hori ez da galdetzen
 hementxe erdian.

6-7-6,5-6-6-6

Azken puntua Zatozenean nire magala
 izango dozu aterpe.

doinua: 2

Haritz Guk biok alkar maitatzen dogu
 baina amesa ezin bete
 hala ta ere itxaropenaz
 oraindik bizi gintezke.
 Kartzelan dozuz ene maitea
 hainbat istilu ta neke
 hala ta ere zure zai nago
 eta lasai egon zaite
 zatozenean nire magala
 izango dozu aterpe.

7,5-8-8-8,5-7,5-8

ANTON ARRIOLA

doinua: xarmangarria zera

Lehen puntua Anbotoko tontorra

zuri zuri dago
Anton Arr: urtero gertatzen da
ohartuta nago
horixe egongo da
gero ta gehiago
hainbat zuriagoa
ta hainbat nahiago.

6,5-6-6,5-7-6,5-6

Azken puntua Zu bezelako neskatxengandik
galduko nuke burua.

doinua: 2

Anton Arr. Neska ta mutil arteko harreman
hori ez da segurua
bata ta bestek zerbait hartzea
jartzen du bere helburua.
Aizu panpina pasatzen zara
ta niretzat apurua
iruditzen jat zure ondoan
dakusadala zerua
zu bezalako neskatxengandik
galduko nuke burua. (bitan)

7-6,5-7-7,5-7-7

ZORTZIKO TXIKIAN

HIRUNA BERTSO

JOSU ARRIOLA ETA JON AZPILLAGA

Gaia: Zu, Josu, hogeitertan zoologikoan egon dan lehoia zara eta zu, Jon,
orain dakarreen barria.

doinua: triste bixi naiz eta

Josu Arr: Zu be ibilia hor
libre eta aske
baina pizti guztiak
harrapa litezke
leku onena danik
zuk ez zazu uste
tonto guztiak hona
ekartzen dituzte.

7,5-7-7,5-7,5-7,5-7

Azpillaga Pasatu izan dezu
denbora ezia
preso pasatu arren
bizitza guztia
nik det alaitasuna
zu zagoz tristia
zu zera lehoi zaharra
eta ni gaztia.

6-5,5-5-8-7,5-7,5

Josu Arr: Adina nik egingo
nizuke gaur truke
eduki gura neuke
zuk afina birtute
oso haundia eta
polit ematen dute
behintzat kaiola hauxe
hazi behar dute.

3,5-3,5-4-5-4,5-5

Azpillaga Kaiolak ez daduka
horrenbeste kako
ta zuk begietatik
hainbat negar malko
hogeitaz urte pasatu
izan ditu bapo
orain bota zaituzte
zahartu zeralako.

7-6-7-8-7-7

Josu Arr: Hoba bota ezkerro
ai adiskidea!
eta libre egongo da
geroko bidea
eternidade bat zan
bizitza nirea
hobe da gazte eta
preso ez librea

4-3,5-5-5-4,5-5

Azpillaga Ibilbidea ere
txarra omen du ta
zer garrantzi lehoi bat
zahartua zainduta
danak hortxe zebiltzen
ezin mantenduta
oin gehio balio du
narrua kenduta.

6-6-6,5-8-8-7

ANTON ARRIOLA ETA IRENEO AJURIA

Gaia: Anton, fama haundiko pelikula bat ikustera joan zara baina zure aurrean dagoen bikoteak ez deutsu ikusten ixten. Zu Ireneo, neskarekin zirrika zagozen mutila zara, Antonen aurrean.

doinua: xarmangarria zera

Anton Arr. Danetatik daukagu
hemen jenerua
ezer ezin ikusi
hau da apurua
Ireneo daukagu
gori ta berua
pantaila ikusi nahi dot
ta ez zure burua.

6,5-6,5-7,5-7,5-7-6

Ireneo Gazteak du odola
gori ta mardula
atzera egiterik
ez uste sekula
pentsatu gaur aukera
ona daukazula
ez al zaizu gustatzen
gure pelikula?

7-7,5-8-8-8-7,5

Anton Arr. Zinematara dator
hainbat astakirten
zer egin hau ikusi
ala kanpora irten?
neskatxagaz baduzu
hainbeste sentipen
hoba hasten bazara
filmeak egiten.

7-6,5-7-7,5-7-7

Ireneo Zuri gura dizut gaur
hau adierazi
linboan ezin leike
lagun hola bizi
espabilatzen ere
behar zara hasi
aukera daukazu ta
oraintxe ikasi.

7-8-7-8,5-7,5-7

Anton Arr Neuk ere badaukat bai
hortako premina
baina neu ere ez naiz
sekula egina
gure konponbidea
niretzat ezina
ikusiko zintuzket
polita bazina.

7-6-6,5-5,5-6-5,5

Ireneo Konturatuko zara
halako batean
honera etortzea
ez dozu kaltean
maiteminduta gaude
lagun hainbestean
gauza hau e'iten nabil
kotsola zaitean.

7,5-6-6,5-6-6,5-7

XABIER AMURIZA ETA JON ENBEITA

Gaia: Zuek, auzo bereko neskamutilak zaree. Xabierrek, neska honek, zuri Jon, mutilari, inoz ez zaituela neskakaz ikusten dinotsu

doinua: egun batean joan zan

Amuriza Zure atzean nabil
mutila jo ta ke
neskari hori beti
gustatutzen jake.
Neskakin ia ez zaitut
nik ikusten bape
zein kanal darabilzun
jakin gura neuke.

7-8-7,5-7-7,5-6,5

Jon Enbeita Ez zaizu damutuko
hori esaterik
nik neskari ez diet
zabaltzen aterik.
Zeu ikusita nago
ni pozez beterik
bihotz honek ez bait du
zeu beste maiterik.

8-7-8-8-7,5-7,5

Amuriza Oraintxe jarri naz ni
 mutilan maitean
 ez neban amaitu nahi
 holako bakean.
 Zatoz nahi dozunean
 hurrengo batean
 bitartean bistatik
 ezkuta naitean.

8-7,5-7-7,5-7-7

Jon Enbeita Nire hitzak damotsu
 hainbeste arazu
 hala ta guzti ere
 neska zai naukazu.
 Ondo pasa gindezke
 aurrerantz ni ta zu
 ez zara damutuko
 probatzen banauzu.

7-7-7-8-7,5-7

Amuriza Gauza ona probatzea
 gozoa benetan
 holako aukerarik
 ez neban kontetan.
 Ezkondu be egingo
 nintzake berbertan
 biharamon goizerako
 alarguntzekotan.

8-8-6,5-8-8-8

Jon Enbeita Kontuan ez al zera
 zu egingo jausi?
 lotsaren kate hori
 behar duzu hausi.
 Neska ikusten zaitut
 nahikoa itsusi
 zoriona auzoan
 ta ezin ikusi.

7,5-7,5-6,5-8-7-7

ELGETZU ETA HARITZ LOPATEGI

Gala: Elgetzu, zu barrenderoa zara eta gaur gabaz zaborrak batzen zabiltzala, zabor ontzi batean sartuta Haritz aurkitu dozu.

doinua: xarmangarria zera

Elgetzu Hutsa zegolakoan
 zaborraren lata
 begiratuta horra
 bitxo zahar hau topa.
 Arratoia da edo
 ganauaren kaka
 kiratsa dauka eta
 jarri daidan tapa.

6,5-7-6,5-6,5-8-7

Haritz Patxaranak egin daust
 barren dana hautsi
 igual zuzenduko naiz
 bihar edo etzi.
 Gizonan itxurarik
 ezin erakutsi
 hemen ondo nago ni
 ta bakean utzi.

7-7-7-7,5-8-7,5

Elgetzu Horra bizi zaigula
 eman digu nota
 neri horrelakoak
 sarri zaizkit toka.
 Leku hoberikan zuk
 ez al dezu topa?
 esna ta garbitzeko
 hobe erreka bota.

6-6-6-6,6-7-6

Haritz Ez bota niri hainbat
 sermoi eta kredo
 ez pentsa nagoenik
 tonto edo ero.
 Lo hementxe gustora
 egin leike gero
 inork molestau barik
 eta bero bero.

8-7,5-7-8,5-7,5-7,5

Elgetzu Inbidia hartzekoa
 honen zoriona
 gau guztia zaborren
 artean egona.
 Azken kontsejua hor
 neronek emona:
 alde laster bait dator
 zabor kamiona.

7-6,5-5-8-8-7

Haritz Alperrik niretzako
kamioian zarata
hemendik ezin nauzu
inola aparta
Ez naiz hobeto egongo
kanpora atarata
itxi naizu baketan
ta zarratu tapa.

6,5-7-8,5-8-7-7

GARTZELAKO LANA

- LEHEN PUNTUA

Txapelaren egarriz
daukagu gaztea

-HIRUNA BERTSO, GURA DAN NEURRI ETA DOINUAN

Gaia: Aurten ehun eta hogeit euskarazko liburu berri agertu dira Durangoko Azokara.

IRENEO AJURIA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

Puntua Txapelaren egarriz
daukagu gaztea
Ireneo neretzat baldin bada
ez neike tristeia.
Ilusiotan ez dut
nahi aurrez hastera
baina gura nuke nik
nigan ikustea.

8-7-7-7-6,5-7

GAIA

doinua: aita izena kanta beharrak

Ireneo Mamian faltan dago Herria
aspaldian du minbera
ez gendun uste baina hor dago
ikusten dan egoera.
Gure Herria zaintzeko jaio
baginan gure lurrera
gaur herri hontan azoka bat da
bada ikusteko era,
lehenen erosi, gero ikasi
eta guztiok aurrera. (bitan)

8,5-7-7-7-6,5-6,5

Aukera izanda, alperriko da
gero hola kezkatzia
gure ohitura ote da beti
ez danetik eskatzia.
Liburu berri asko hor dira
eta nahi nuke zaintzia
gura ez badegu literatura
gure Herrian galtzia
ea nozbaiten hartutzen degun
euskaldun kontzientzia. (bitan)

7-6-6,5-7,5-6,5-8,5

Gure Herria gaxorik dago
beragan da zenbait zama
gaurko azokak sentimentura
igarri Babe narama.
Ikasi Babe lehenago ere
denpora asko da joana
txorokeriak utzi daiguzan
hortxe dago gure mana
bestela alperrik izango bait da
idazlari onan lana. (bitan)

5,5-5,5-6-6,5-6,5-7

JOSU ARRIOLA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

Puntua Txapelaren egarritz
daukagu gaztea
Josu Arr: baina oso urduri
tripa ta hestea.
Buruan ere daukat
kristoren nahastea
behintzat oraindik ez dut
txapelan ustea.

7-6-7,5-7,5-6-6

GAIA

doinua: kantore berri xarmant batzuek

Josu Arr: Idazle hoiek zoriontzea
erabaki dot orain nik
gure Herriko kultura hori
jasoko da hoiengandik.
Eta trabarik ez bada sortzen
Herri hontara inondik
beste hainbeste helduko dira
gure Herrira oraindik. (bitan)

7,5-7-7-7,5-8-7

Ez egon inor erdara horri
deika edo erreguka
Euskal Kultura gorantza doa
hori ezin dogu uka.
Apurka apurka irabazi da
hasi genduan burruka
ikusten danez gure Herriak
euskara gosea du ta. (bitan)

8-7,5-6,5-7,5-8-7 .

Noizbait euskaraz irakurtzeko
garaia be iritxi zan
eta harrezkero inor be ez da
egon sekula zalantzan.
Erdera hori bota hemendik
ta danok gaur hasi dantzan
joka dezagun Euskal Kultura
hobe baten esperantzan. (bitan)

7,5-7,5-7-8-7-7

JON AZPILLAGA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Txapelaren egarriz
	daukagu gaztea
<i>Azpillaga</i>	ni'e ez naiz etorri
	lotsaz ta tristea.
	Hontara ezkerro ez du
	merezi uztea
	kostatu behar zaie
	aurten irabaztea.

5,5-5,5-6,5-8-7-6

GAIA

doinua: mutil kozkor bat itsu aurreko

<i>Azpillaga</i>	Durangon dagon azoka honek
	badu halako harrera
	ehun ta hogei liburu nunbait
	dagoz gutxi gora behera.
	Zerbait erosi nahi duenentzat
	hor azaldu dan aukera
	zer edertasun euskera maite
	duten guztien aurrera!
	lehengo kontuak amaitu ziran
	mejoratzen ari gera.

7-7-7-7-5-7,5

Danak dakite euskera dala
Euskadiren oinarria
lehen zapalduta baina oraintxe
altzatzen dago jarria.
Oraindik gehio ertengo dala
daukagu iragarria,
esna dedila euskozalea,
esna dedila Herria,
denon artean salbatu daigun
euskera maitagarria.

7,5-7-7-8-7,5-7,5

Beste azoka ederrago bat
sekulan ez det ikusi
gaurkoa ez da, orain hiru egun
hor martxan ziraden hasi.
Gaurko eguna euskozaleak
ez zaizue gaizki jausi
zuek'e hainbat gauza irakurri,
saltzaileak irabazi,
Durangotikan joaterako
liburu bana erosi.

7-7-8-8-8-7

XABIER AMURIZA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Txapelaren egarriz daukagu gaztea
<i>Amuriza</i>	ez da errez izango nik irabaztea. Brometakoa ez da hurrengo astea gazteak eroatea ez dok hain tristea.

7,5-7-7-7-7,5-7

GAIA

doinua: semaforoak gorri ta berde

<i>Amuriza</i>	Gure azoka aurrera doa Durangon urterik urte eta halantxe jarrai daiala gutxienez mila urte. Ehun ta ez dakit zenbat liburuk aurten harte dabe parte ni idaztea itxita nago hori bait da oso merke ez neban este hainbeste idazle zegonik nitaz aparte. (bitan)
----------------	--

6-6-6-5,5-7,5-7,5

Urterik urte Durango aldera
euskaldunak pozik datoz
liburu eta disko barriek
damoskue hainbeste poz.
Gitxi garela, asko garela,
itaun bat daukat aprapos:
portzentaje horri gero jendeen
kopuruak bajatorkoz* *badatozkio
hainbat liburu publikatzeko
zenbat irakurle dagoz? (bitan)

8,5-8-8,5-8-8,5-8,5

Euskeran alde bertso ta bertso
hortxe gabiz herriz herri
harrigarria deritxot jaunak
liburu kopuru horri.
Ni gogaituta nengon ta aurren
ez joat bape ekarri
hainbat liburu ipini dabez
guztion erakargarri
ez al da hoba gitxiao idatz
eta gehiago irakurri? (bitan)

8-8-7,5-8-8,5-9

JON ENBEITA

LEHEN PUNTUA

Doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Txapelaren egarriz daukagu gaztea
<i>Jon Enbeita</i>	pozgarria da hola jendea hastea. Euskaldun ohitura hau gogoz ikastea bigarren mailako da nork irabaztea.

6,5-6-7-7-8-6,5

GAIA

doinua: gai horrek badu mamia

Jon Enbeita Liburuak datozela
amaibako katera
Herriko kulturarentzat
hori ez da kaltera.
Geure hizkuntzaren jaube
noizbaiten izatera
bide hortatik seguru
gu iritxiko gera,
baina Herri honek zor du
bestelako irtera:
ea Herri hau badoa
liburuaz batera. (bitan)

8,5-7-7-8-8-7,5

Nire aipamena dute
idazleak merezi
lan eginaren kontra gaur
ez neuke gura hasi.
Bide desberdinetatik
behar da irabazi
baina ni ikusten nago
hainbeste injustizi,
zertarako liburuak,
euskal hainbat notizi,
Herri honek dun katea
ezin badugu hausi? (bitan)

8-7,5-7-7-7-8

Ehundik gora omen dira
ekarriak gaur egun
zorionak ta aurrera
bide horretan jardun.
Elkartu abertzaleok
denok elkarren lagun
kultura jaso behar da
edonoz eta nahinun,
baina Herri hau munduan
izan daiten ezagun
borrokaren liburua
geuk idatzi dezagun. (bitan)

9-9-9-9-9-9

JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

Puntua Txapelaren egarriz
daukagu gaztea
Elgetzu eta bila nahi nuen
aspaldi hastea.
Ez nuke galdu nahi nik
txapelan ustea
ai zer zoragarria
neronek jaztea!

7-7,5-8-8-8,5-7

GAIA

doinua: aita izena kanta beharrak

Elgetzu: Lapiko zaharra zintzilik dago
euskaldunon laratzean
ta aspaldian aurkitzen ginan
su ondo triste antzean.
Baina Anboto aldetik gora
goizean begiratzean
poza hor dator liburuz gure
azoka hori jaztean
lore berriak ernetzen doaz
euskaldunon baratzean. (bitan)

8-8-7-8,5-7,5-7

Gure Kultura alde hortatik
beti izan da apala
liburu bat guk nola genduan
geure amaren magala.
Baina idatziz berbizen dator
orain hurrengo atala
eta izan bedi munduan zehar
behar dun indar zabala
erakusteko behar dan tokian
oraindik bizi garala. (bitan)

7-7-7-8-9-8,5

Liburu hoiek osatzen dute
guregan hainbeste ames
zuzentzen doa gure bidea
nahiz ta lehen ibili trabes.
hainbat borroka izana degu
ez gera joanak errez
orain frutuak hartzen bagoaz
ikusi daitezke aurrez
laister guztiak euskeraz bitez
eta erderazkoik bat'ez. (bitan)

6,5-7-6,5-8-7-7

HARITZ LOPATEGI

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Txapelaren egarriz
	daukagu gaztea
<i>Haritz</i>	legezkoa ez al da
	horretan hastea?.
	Beharbada atera
	liteke nahastea
	hala ere ez da hori
	nik dudan ustea.

7-6,5-7,5-8-6,5-6

GAIA

doinua: ama birjina erkudengoa

<i>Haritz</i>	Liburu hoiek ataratzea
	ondo iruditzen zait neri
	gure euskara pasatzen dago
	hainbat ta hainbat komeri.
	Ehun eta hogeitaz liburu hoiek
	ezin dira izan gehiegi
	Euskadi eta gure euskararen
	onerako izan bedi.

7-7,5-6,5-8-6,5-7

Liburu hoiek irakurtzea
da orain gure ardura
Euskal Kultura indartutzea
da guk daroagun guda.
Liburu hoiek irakurtzea
besterik ez nuke gura
ta apurka apurka indarrez doa
euskaldun literatura.

7-7-6,5-7-6,5-5,5

Nahiz ta hasieran gure kultura
izan debil edo ahula
jakin bezate oraindik ere
esperantza badogula.
Gure kultura hori da eta
ez daigun etsi sekula
kanpoan ere ikus bezate
idazten badakigula.

8-8-7-7,5-7,5-7,5

ANTON ARBIOLA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

Puntua Txapelaren egarriz
daukagu gaztea
Anton Arr: horretarako nago
ni oso tristea.
Nerbio asko eta
buruan nahastea
niretzako ez da izango
holako trastea.

6-7-6-7,5-7,5-6

GAIA

doinua: zeru altuan zegoen jaunak

Anton Arr Hainbeste urtetan gure hizkuntzak
jasan izan dau itzala
Francon garaian errepresio
hori ez zan izan makala.
Esaten dabe hainbat liburu
euskeraz egiten dala
argi ikusten dagure euskara
apurkan gorantz doala.

7-7-7-8-8-6

Batzuek dabez euskeragana
minak eta gorrotoak
literatura mailan egiten
deuskuez heuren jokoak
batzuk euskaldun izanagatik
dira halako kakoak
goruntza ez zan joango guztiak
balira Juaristi lakoak.

6,5-6-5,5-6-6-5

Literatura arloan sarri
euskara izan da makala
idazle batzuk hala ta ere
egin dabe eginahala
badakizue Juaristi hori
gure aurkakoa dala
nik gura neuke neure berba hauek
berak entzun dietzala.(sic)

7-6-5,5-6-7-6

AZKEN AGURRAK

doinua: kantore berri xarmant batzuek

Ireneo Ahal dan bestean egin dogu ta
 hustu da gure ganbara
 duda bat daukat neure barnean
 ondo portatu al gara?
 dudarik ez da, hemen onena
 entzule maite zeu zara
 gaurko saioa amaitu da ta
 joan gaitezen azokara.(bitan)

doinua: 3

Josu Arr: Gustatu al jatzue
 gaur saio sanoa?
 niretzat etorri da
 ekaitz ta lainoa
 ta holan ezin bete
 nekarren asmoa
 ni lehoi etorri naiz
 eta katu noa(bitan)

doinua: 2

Azpillaga Hoge eta sei urte badira
 txapeldun izan nintzala
 oraindik ere hemen nabil ni
 lagun gazteak bezala.
 Burua zuri jarri zait baina
 lehengoa daukat azala
 eskatutzen det nere osasunak
 luzaz konserba nazala
 ta Arriagako txapel santua
 Jaunak bedeinka dezala.

doinua: Espainian behera

Amuriza Gaurkoa amaitu da ta
 beharko agurtu
 gu behintzat gagoz orain
 kanporako gertu
 ondo bazkaldu eta
 hobeto ausnartu
 eta Arriagako
 biletea hartu
 gogaitu bazarie
 ez trenean sartu. (bitan)

doinua.: aizak hi mutil mainontzi

Jon Enb. Mila nerbio ta nahaste
gaur ia ito gaituzte
honek bukatu behar zuenik
ez genuen uste.
Agur berdin zahar ta gazte
danok bakean zoazte
eta barkatu izan ez bada
merezi hainbeste. (bitan)

doinua: uso zuria errazu

Elgetzu Ez zan nahi gendun hain laster
eta hor bakoitzak azter. (bitan)
Borondatez guk inoren aurka
hemen ez genduan ezer
ta pozik goaz ondo badira
denak bertso hauei esker. (bitan)

doinua: 4

Haritz Hemen entzun dozuez
hainbat historia
bardin esaten doguz
gezur zein egia
nerbioekin ere
hainbat komeria
ze gustora jango dot
orain bazkaria. (bitan)

doinua: galderatxo bat egin didazu

Anton Arr. Saioa ederra egiteko ni
ibili naiz afanean
eta ai zer min hartu dodan nik
kartzela hortako lanean!
gaia ederra izan da baina
ez naz egon onenean
azken bertsoa izan daitela (bitan)
Azokaren omenean.

PUNTUAKETA

Puntuaketaren barri emon aurretik, ohar bat: ehun eta hoge euskarazko liburu barri, esan dogun lez. Horreen artean, bat, eskuetan doguna Jakin aldizkariak atara barri dauan "Bertsolariak" liburua, Joan Mari Tor realdairen gidaritzapean egina; bertan dituzue zenbait eritxi, zenbait historia, bertsozaleentzat muro muineko liburua.

Eta danok itxaroten dogun momentutxo hau heldu da eta hemen dira zenbakiak. Kantatu daben ordenean esango ditut, betiko lez, eta honela dira:

Ireneo Ajuriak	499,5
Josu Arriolak	484
Jon Azpillagak	517,5
Xabier Amurizak	549,5
Jon Enbeitak	536
Elgetzuk	520
Haritz Lopategik	525,5
Anton Arriolak	477,5

Txapelketaren finalurreko lehenengo saioa izan bada hau, bigarrena Gasteizen izango da, datorren igandean, Landazuriko frontoian hain zuzen. Beraz, bertsozaleok, hantxe egongo gara.

GASTEIZ

87-12-13

bertsolariak

RIKARDO GONZÁLEZ DE DURANA
ABEL ENBEITA
JON MUGARTEGI
MOISES ENBEITA
GREGORIO LARRAÑAGA "MAÑUKORTA"
XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"
JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"
JOSE LUIS BASTERRETXEA "ALTZALEI"

GASTEIZ

Araba-Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, jende mordo haretatik atarata, familia artean sartzen dogu gaur. Toki argitsu eta txukun honetan ibiliko al dira gure bertsolarien irudimenak gaur hain argi!

Bigarren finalurreko saio honetan sartzen gara, dakizuenez, gelditzen diran beste zortzi bertsolariakaz. Danon ezagunak. Suertearen poderioz, arabatarrak berton ditugu, Araba aldetik aurkezten direnak, lehenengoa Rikardo Gonzalez de Durana, eta, Abel Enbeita, Araba aldetik beragaz bikote egiten dabena. Besteak, Jon Mugartegi, Moises Enbeita. Honek izenik bere ez dauko: Mañukorta. Xabier Arriaga "Txiplas". Juan Mari Areitio, eta azkenik, Jose Luis Basterretxea "Altzalei".

Ezer baino lehen, horreek, eztarriko kordelok edo apur bat tonoa hartzen joan daitezcan, bertsolarien agurrak ordena berean. Zutik.

AGURRAK

doinua: Pello Joxepe

Rikardo Egunon denoi, aurrera doa
hasitako Txapelketa
eta dakargun mezua ezin
dezakegu utz gordeta.
Beraz lehenbait lehen egin dezagun
dagokigun ariketa
bertsotan ari geradenean
gure saltsan gaude eta.

doinua: Pello Joxepe

Abel Enb. Gaurkoz giroa nahiz ta ez dagon
Durangon zegon lez bero
eguerdion lehendabiziko
kantuan hasi ezkerok.
Gaurko eguna ensaio bat da
Arriaga dator gero
ikusiko da nori laguntzen
azaltzen dan Olentzero.

doinua: Pello Joxepe

Mugartegi Egunon eta ongi etorri
gauza pixkat sakontzeko
arabatarrai ez nago hemen
bere gradua kentzeko.
Bihotz onakin etorria naiz
guztiak zoriontzeko
danen beharra izango degu
Araba euskalduntzeko.

doinua: Iparragirre abila dela

Moises Enb. Bertsolari ta bertsozaleok
berriro alkatu gara
Txapelketaren final erdiak
jo dauskue ta aldaba.
Bilborako txartela
hemen be saltzen dela
baten bat gelditzen bada,
egunon bertsozale danori
besarkada bat Araba.

doinua: Iparragirre abila dela

Mañukorta Jaunak egunon batzuk begira
bestek irratiz aditzen
hau baldin bada saiatuko naiz
saio jator bat eskintzen.
Oihu eta txaluak
behar ditu gaur saiuak
giro jator bat ipintzen
guztion arte egun jator bat
pasa daigun Gasteizen.

doinua: Mehetegiko txakurra

Txiplas Gu zelan egongo garen
ez al dozue igarri? (bitan)
nahiz komunera joan sarri
berriro ere txisalarri,
ez al dau inork guretzat
orainelen bat ekarri?. (bitan)

doinua: 2

Areitio Bertsoen bidez azaldu behar
ditugun poz eta penak
bertsolariak hau egiten du
gaur ta lehenago zirenak.
Nabari dira hemen ditugun
gure larritasun denak
baina egunon ta ongi etorri
hona etorri zaretenak
zuen pozgarri botako doguz
bota ahal duzen* onenak (bitan) *doguzen

doinua: hamaika hola erdipurdiko

Altzalei Orain aspaldi sartu zitzaidan
bertsotako bizioa
akaso ez naiz hortan izango
komeni aina iaioa.
Txapelketetan kantatutzea
hain da gauza serioa
danen gogoko izango al da
goize hontako saioa!

I

HAMARREKO NAGUSIAN

HIRUNA BERTSO

RIKARDO GONZALEZ DE DURANA ETA

ABEL ENBEITA

Gaia: Abel, hamabost urte alkarregaz bizi ondoren, Rikardo zure emazteak "ni banoa" dinotsu.

doinua: aita izena kanta beharrak

Rikardo Ezkondu eta gure bizitza
zegoen erdi beteta
horretarako beti ezarri
izara dugu arreta.
Baina arazo batzuk sorturik
eta nabil ni erreta
nere barrean orain dudana
ezin dut utzi gordeta
zutaz aspertu naiz erabat ta
hemendik banoa eta. (bitan)

5,6-5,6-8-5,6-4,6-5

Abel Enb. Jantzi dotorez pausu arinez
isila eta umila
beti puntuar azaltzen zinan
nere bihotzaren bila.
Hamasei urtez amets artean
geroko ametsak pila
bazoazela esan didazu
eta gelditu naiz hila
bakarrik ez dut bizi nahi eta
lurrak irentsi nadila. (bitan)

5,5-5,5-7-7,5-5,5-6

Rikardo Hori esanez gizatasunik
zuk ez duzu erakutsi
nolanahi ere gure bizitza
ez bait dezakegu hautsi.
Zure errietak, zure kolpeak
nik ez dut jasana gutxi
zeren bizitzan gertatu ohi dan
horrenbeste gauza bitxi
erosketara joango naiz baina
mesedez pakean utzi. (bitan)

5,5-6-7,5-8-6-6

Abel Enb. Nere besotan izana zara
pozarren hainbeste bidar
kaixo maitea nik hots egin ta
zuk begiekin irripar.
Jo zaitudala esan didazu
begietan daukat negar
geroztik ere egin beharko
bakarrikan hainbat bidar
ezin sinistu nundikan heldu
daiteken hainbat zoritxar! (bitan)

4,5-4,5-5,5-5-4,5-4,5

Rikardo Beti azaltzen dirade hemen
tamalean ezbeharrak
pasa ditugu egun ederrak
eta pasa'itugu txarrak.
Zure ekintzak nerekiko hor
izanik horren kaskarrak
eta gainera azkenerako
ahituz zure indarrak
ni ez nazake sekulan bete
munduan gizon bakarrek. (bitan)

6-6-7-6-5-6

Abel Enb. Ta horregatik bakarrik al da
zu joatea aparte?
askon tantean lortu daiteke
ezbearra edo kalte.
Nere barrena triste utzita
hemen ta bien bitarte
hala ta ere nahiz ta agurrak
atze txarra bait daukate
beste gauzarik ez dizut opa:
zoriontsu bizi zaite. (bitan)

7-7-7-6-6-6,5

JON MUGARTEGI ETA MOISES ENBEITA

Gaia: Jon, gaur zu herriko frontoira eskupeletan egiteko asmoz etorri zara, eta Moises saskibaloian olgetan aurkitzen dozu bertan, balonzestora olgetan.

doinua: aita izena kanta beharrak

Mugarategi Gertaera bat nola izan dan
hauxen da nire jarduna
eskupeletan jokatu nahi ta
saskibaloian laguna.
Ez dakit non dan frontoi horretan
gidari agindutzen duna
baina neretzat gauz hori ez da
gozoa eta biguna
saskipelota nola ez degun
berebiziz euskalduna. (bitan)

6-7-6,5-6-5,5-8,5

Moises Enb. Eskupelota maite dozu zuk
nik saskia atsegin
gure artean gaurko honetan
sortu da halako grina.
Jolastutzeko une honetan
zure besteko premina
zertan daukazu ene laguna
ohitura zaharren mitina
frontoia libre izango zendun
goizago jaiki bazina. (bitan)

7,5-8-7,5-7,5-8-8

Mugartegi Ikusten nago argi samarra
nola zabiltzen talentuz
baina nik gauza guztiak hemen
jarri nahi nituke puntuz.
Zure esanetan ni ez naiz bizi
arlo berean kontentuz
ni hemen nabil euskal kirolez
eskupelotan jokatz
ohitura zaharrai jarraitu eta
Euskal Herria goratuz. (bitan)

8-7-7-7-6-7

Moises Enb. Pelota eta saskibaloia
ibili leikez batean
lagunak gara gu aspalditik
gaurkoz gaitean bakean.
Eta ez mindu une honetan
nik gauza hau esatean
goizean goiztik ibili naiz ni
kirolarien antzean
orain pixka bat itxaron lagun
zeure txanda heldu artean. (bitan)

7,5-7-6-6,5-6,5-7

Mugartegi Nik beti ontzat hartutzen ditut
beste batzun agiriak
sekulan ere ez nau baztatu
bihotzaren inbidiak.
Eskupelotan jokatzeko hoiek
dirade joko garbiak
ta lagun honek gordetzen ditu
beste batzun alderdiak
nik aurrerantza ikusi nahirik
geroko pelotariak.(bitan)

7-6,5-6,5-6-5,5-6

Moises Enb. Zuk pelotaren gorapenetan
bihotza daustazu hustu
euskalduna naiz zure bertsoak
neu ere egin nau poztu.
Baina gaur gure arazo zein dan
laguna ez zazu ahaztu
zu baino lehenao etorria naiz
saskira nahi dot jokatu
ta hotzitzeko bildurra bada
pizkat neurekin jolastu.(bitan)

7-6,5-6-5,5-7-6,5

**GREGORIO LARRAÑAGA "MAÑUKORTA" ETA
XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"**

Gaia: Mañu, Nautika ikasketak eginda, itxasoan asper asper eginda lehorrean geratzeko dagoen Txiplasen postua betetzera zoaz. Beraz, Mañurentzat lehenengo bidaia eta Txiplasentzat azkena".

doinua: aita izena kanta beharrak

Mañukorta Bi lagun maite halabeharrez
alkartu gera batera
bat itxasora lantoki bila
eta bestea lurrera.
Hor zer berri dan gaurtik aurrera
kontuak behar atera
lantegi hortatik sortu nahi nuke
bizimoduan joskera
ta probauko det nolakoa dan
ikasi dedan karrera. (bitan)

7-7-6,5-7-7-7

Txiplas Itxaso hortan hainbat urtetan
nik izan dut arriskua
ta lagunari zabaltzen diot
horretarako eskua.
Hainbat denbora txar ere bertan,
sarritan une estua,
nik neure iritxiz nahiko egin dut
lurra ere daukat ahaztua
zeu joan eta ondo hete hor
nire kapitan puestua. (bitan)

7-7-7-7-6,5-7

Mañukorta Tokia ondo betetzeko hor
agintzen bait dit lagunak
hauek dirade urte askoan
itxaso hortan jardunak.
Ta Mañukortak pasauko ditu
gaba luze ta egunak
arrai freskoaz bete nahirikan
lur hontako euskaldunak
gaurtik aurrera atrapauko'itut
txitxarro eta atunak. (bitan)

7,5-7-7-7-6-7,5

Txiplas Arrantzalea jatorra dugu
eta hortik erabaki
lanerako inoiz ez du jarriko
ez oztopo ta atxaki.
Baina kontseju batzuk ematen
noa orain lagun bati
hau galdetu dut sartu orduko
gainerako ta hainbati
nire puestora doan lagunak
igerian ote daki? (bitan)

7,5-7-7-7-7,5-7

Mañukorta Igerian'e ez dakit eta
badaukat nahiko bildurra
nolan ibili Mañukortak dun
gorputz aldrebes bihurra.
Baina hala ere han egingo det
egin ahal dedan apurra
arrai ondorik itxas zabalen
nunahi emanaz egurra
eta zuk ondo zaindu zazu
nik utzitzen dedan lurra. (bitan)

5,5-5,5-6,5-6-6

Txiplas Zuretzat bertan, egia esan,
horren leku ona ez dago
lehenago ere bueltatu gabe
dira bat baino gehiago.
Lan gogorra ta neketsua da
toki hortan egunaro
nik zure lana egin behar dut
egingo dut ta akabo
baina zu berriz ikusi ala ez
erdi bildurretan nago. (bitan)

5,6-6,6-6-6,6-5-7

**JUAN MARI AREITIO ETA
JOSE LUIS BASTERRETXEA "ALTZALEI"**

Gaia: Zuek senar-emazteak zaree. Zuk Juan Mari, senarrak, umeak euki gura dozuz, ta zuk Altzalei, emazteak, oster, ez dozu seme-alabarik euki gura.

doinua: aita izena kanta beharrak

Areitio Ezkonduaren bizimodua
beti izaten da binan
ta erabakiak hartu beharra
izaten dogu tamainan.
Hori horrela izaten dogu
bai orain ta bai antxinan,
ni ta emaztea aurkitzen gara
orain arazoen grinan
haurrik mundura ez ekartzeko
zertako ezkondu ginan? (bitan)

6-6-7-7-8-7,5

Altzalei Ume barik be bizi leike ta
hartu egizu patxada
nik zertarako hartu behar det
ume ekarten pasada?
Besotik heldu alkarri eta
pasiatutzen plazara,
nahiko dotore biziko gara
eta ez zaite ikara
ume gehiago zertan ekarri?
zeu be nahiko ume zara. (bitan)

8-8,5-8-7-9-8,5

Areitio Honi umerik ekarri ez arren
ez dio bat'e axola
garbi ikusi da une honetan
mintzatu bait zaigu hola.
Emakumeak erabaki hoi
hartu du ez dakit nola,
ikusten dezu nere barrena
triste ta goibel dagola
mundu honetan zertarako da
frutu gabeko arbola? (bitan)

8-8-7-7-7,5-8

Altzalei Erantzun hori izango zala
nengoen horren susmotan
fruturen bila ezkontzen dala
entzunda nago askotan.
Halan ta ere ni ez naukazu
oindik gauz horren asmotan
dale ta dale kanta berari
berdin kale, berdin lotan
pare bat ume ekar ditzagun
baina zeuk ekartekotan. (bitan)

7,5-7,5-7,5-8,5-7-8

Areitio Gizona ezin leike erori
emazte honen lazuan
erabakiak hartuko ditut
nik hor pausuan pausuan.
Asmo txar hori ikusten danez
honek lehenagotik zuan
haurtxoak oso politak dira
etxean eta basuan
zuk ekarri nahi ez badezu nik
ekarriko'itut auzuan. (bitan)

7,5-7-7,5-6,5-8-8

Altzalei Lehenago ere auzoan sarri
nola zaitut errepara
baina holakorik egin ezkero
Jaunak zaitzala anpara.
Gu alkartuta bizitzekotan
noizbait ezkonduak gara
umerik gabe ere bizi lei
ta joan gaitez lotara
zertako baina umeak hemen
mundu aldrebes hontara? (bitan)

8,5-8,6-7-8,5-8-7,5

II

LEHEN ETA AZKEN

PUNTUA EMANDA

RIKARDO GONZALEZ DE DURANA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Preso dagoenantzat

Gabon jai tristea

Rikardo Baina ezin dugu hor
negarrez hastea.
Pasatu arren hemen
horrela urtea
horrek behar duena
da libertatea.

5-6-6-5,5-5,5-5

Azken puntua Berriz halako gizon klaserik
sortuko al da mundura?

doinua: amodioa gauza tristes

Rikardo Euskal Herrian horretarako
baldin badago ardura
uste dut hortik jo litekela
txit leku ba segurura.
Orain datorkit hain zuzen ere
une hontan nere burura
Xalbadorrekin aberats dela
euskaldun literatura
berriz halako gizon klaserik
sortuko al da mundura? (bitan)

6-6-7,5-7,5-8,5-7

ABEL ENBEITA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Zenbat jokatzen dozu
aurten loterian?

Abel Enb. oraindik burua dut
horren aberian.
Badakizu zuk gauzak
nola izaten di'an
hutsean gelditzea
beti azkenian.

6-6-6-6-5-6

Azken puntua Esanak esan baina ez dago
inon lodirik jan gabe.

doinua: aita izena kanta beharrak

Abel Enb. Rejimenakin makinatxo bat
hortik azaltzen da trebe
berdura eta alkohola kendu
ta kirola bere lege.
Hala ta ere tripa goruntza
sarritan izaten dabe
nere itxura ikusi eta
konturatuko dirade
esanak esan baina ez dago
inon lodirik jan gabe. (bitan)

7-7,5-7-6-6,5-7

JON MUGARTEGI

doinua orain hasi biagu

Lehen puntua Santo Tomaserako
ze asuro daukazu?

Mugarategi feri horretan bertan
ni izango nazu.
Ta herritik bilduak
hainbeste gurasu
feri eder askoa
ikusi nahi badezu.

6-6-5,5-6,5-5-6

Azken puntua Drogaren bildur handirik behintzat
ez zan izaten orduan.

Doinua: mutil koskor bat

Mugarategi Bizi izaten ere ez dago
erreza gaurko munduan
gaiztakerien bildur haundirik
ez zan nere akorduan.
Anai ta arreba alkartzen ginan
danok alkarren onduan
herri bat hortxen bizi bai zeta
oso osasun senduan
drogaren bildur haundirik behintzat
ez zan izaten orduan. (bitan)

8,5-7-7-8-8-8,5

MOISES ENBEITA

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Olentzeroa dator
opariz beteta
Moises neuretzako zertxobait
izango gordeta.
Karta polita atzo
egin dautsat eta
ez zaitez egon zu
inbidiz erreta.

6,5-6,5-7,5-6-6-6

Azken puntua Egun horretan igarri barik
egin nintzan ni aitondu.

doinua: aita izena kanta beharrak

Moises Berrogeitahamar urte joanak
ederto gara konpondu
emazteak ta nik oso ondo
etxeko gauzak atondu.
Sendi eder bat sortu genduen
guretzako horrek on du
seme zaharrena sendi ta guzti
zorionez da ezkondurik
egun horretan igarri barik
egin nintzan ni aitondu. (bitan)

8-7,5-7-6-7-7

GREGORIO LARRAÑAGA "MAÑUKORTA"

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Negua heldu da ta
suari begira
Mañukorta basarriko sendiak
hola egoten dira.
Batzuetan haruntza
jira eta bira
ongi pentsaturikan
gauza ederrak dira.

4,5-4-6,5-4,5-4,5-5

Azken puntua Bertsolaria horrexegatik
ikusten dogu kezkatu.

doinua: mutil kozkor bat

Mañukorta Zerbait nahi eta askatasuna
ikusten degu urruti
eskatu arren ezetza dator
dudarikan gabe beti.
Euskal Herria zoritxarrean
eginda degu lau zati
Nahi ta ikurrina hortxen ikusi
adar haundi baten zuti
bertsolaria horrexegatik
ikusten dogu kezkatu. (bitan)

7-7-6-8-7-7

XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Durango ta Gasteiz
hurrengo Bilbora
Txiplas nortzuk joango diran
behera eta gora.
horrexen jakin nahia
hemen egongo da
ea neu be banoan
hango tablerora.

7-6,5-7-6,5-8-6,5

Azken puntua Lan egiteko prest egon arren
tokirik ezin aurkitu.

doinua: mutil kozkor bat

Txiplas Mundu honetan nire antzera
arazoak asko ditu
bestela zeuen etxe inguruan
adi egon ta begitu.
Nahi nuke baina zoritxarrean
oraindik ez da amaitu
martxa honetan luzaro baten
guk ezin geinke jarraitu
lan egiteko prest egon arren
tokirik ezin aurkitu.

8-7,5-6,5-6,5-6-7

JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Zazpigarren alaba
ei dogu Araba
Areitio hori pentsatzen nago
eguna ta gaba.
Senidea da eta
ezin dogu laga
estimaiko genduke
euskalduntzen bada.

7,5-7,5-7-8-8,5-7,5

Azken puntua Euskal Herrian beldurragatik
ixildu jaku poeta.

doinua: mutil kozkor bat

Areitio Hau entzutean goibeldutzen da
bertsolarien kopeta
baina sinistu beharra dago
hola ikusten det eta.
Baina sentitzen deguna bota
ez daigun utzi gordeta
arerioek gogor dabiltza
metraila ta eskopeta
Euskal Herrian beldurragaitik
isildu jaku poeta.

7,5-7,5-6-6-7-6,5

JOSE LUIS BASTERRETXEA "ALTZALEI"

doinua: orain hasi biagu

Lehen puntua Ajuria Enea
daukagu ondoan
Altzatei Iruinara behar da
gauz hori eroan.
Baina egin behar zan
lehenago beroan
gauza hoiek orain ja
ez ditu gogoan.

6-5,5-6-5,5-6-4,5

Azken puntua Hurbiltzen doa baina oraindik
ez jaku heldu garaia.

doinua: sentimentua sortu zitzaidan

Altzatei Gaurko egoera inolaz ere
guretzat ez da lasaia
jo ta jo dabil beti bezala
Euskal Herrian etsaia.
Halan ta ere dakigu egiten
komeni danean jaia
askatasuna beti izan da
Euskal Herriaren nahia
hurbiltzen doa baina oraindik
ez jaku heldu garaia. (bitan)

8-7,5-7,5-8-8-8

III

ZORTZIKO TXIKIAN

HIRUNA BERTSO

ABEL ENBEITA ETA JON MUGARTEGI

Gaia: Zu, Abel, irakaslea zaitugu; azterketa bezperan parrandan zabiltzala, zure ikaslea dan Jon aurkitu dozu goizaldeko orduetan.

doinua.Maritxu nora zoaz

Abel Mutila, horrek dituk
gazte baten trazak
lehendik ere ikasketak
dijoaz eskasak.
Aldentzen ez badituk
ardoen konpasak
bihar seguru ditut
hitzat kalabazak.

6-7-7-7,5-7-6

Mugarategi Agertu nahi nituzke
bide umilenak
ez ditut probatuko
hegal debilenak.
Goizeko laurak aldean
hala zebilenak
zer erakutsi behar du
hola dabilenak?

6-6-6,5-6,5-6-5

Abel Hankak trabeska eta
itxura mardula
alkoholak ahotikan
damotsa eztula.
Horrela ezin aurrera
mobitu sekula
gero ez neri esan
ikasten duzula.

6,5-6,5-7-6,5-7,5-7

Mugarategi Hala ere badaukat
nahiko pazientzi
barrunak ematen du
hainbat kontzientzi.
Neure jakinduriei
nahi nioke eutsi
ez dakien batek gaur
zertan erakutsi?

6-5,5-7-6,5-6-7

Abel Zertan eutsi behar du?
zertan erakutsi?
hementxen behar zaitut
binar arte utzi.
Hala ere gauza bat
esanez lehenbizi
mozkorra kendu eta
etor hadi etzi.

6-6,5-6,5-6,5-7-7

Mugarategi Nik ez daukat joan beharrik
mozkorra kentzera
maisuk bai bere lanak
ondo atontzera.
Halan ta ere ez dator
nere bihotzera
hobe joaten bazera
ardiak zaintzera.

7-6-6,5-6,5-6-6

ALTZALEI ETA RIKARDO GONZALEZ DE DURANA

Gaia.~ Bazkaltzeko batu zaree zuek biok. Zuk Altzalei, ardua eskatu dozu eta zuk Rikardo, barriz, ura.

doinua: egun batean joan zan

Altzalei Badakit edateko
ura be dagola
baina zertan burua
horrela kontrola?
Urik ez det edaten
sekulan inola
askoz be hobea da
Kristoren odola.

7-8-6-7-7-7

Rikardo Zeozer entzun behar
horrela hasita
gaizki gorputza eta
gaizkigo patrika.
Zuk edaten duzuna
hortik ikusita
ez da odola baizik
gizonen kimika.

5-5,5-5,5-6-5-6

Altzalei Hori ez dogu eta
gutzat kastigoa
bazkaritzarako nik
e'in dot jestioa.
Ardaua eta ura
hau da sesioa
ardauak egiten du
ta dijestioa.

6,5-6-5,5-6-5,5-5,5

Rikardo Ura edanez nabil
bare eta lasai
eta zure kimika
ez dut probatu nahi.
beraz ez zaitez egon
orain horrexen zai
dijestio ardoak
ta urak ere bai.

5,5-6-6,5-6-6-5,5

Altzalei Hasarre hau dala ta
ez galdu giroa
ardauak jartzen dausta
barrua beroa.
Itotzeko oraindik
ez daukat gogoa
zuk edan zazu ura
eta nik ardoa.

6-6-6-6-6-6

Rikardo Eztabaidan hasita
orain nereko
ardoa defendatzen
duzu zuk polito.
Edan gura duzuna
zerorrek ta kitto
nik asko edan dut ta
oindik ez naiz ito.

7-7,5-6-6,5-7,5-7

**MOISES ENBEITA ETA
GREGORIO LARRAÑAGA "MAÑUKORTA"**

Gaia: Jubilatu bi zaree eta Kontxako barandilara arrimatu zareenean, hondartzan neska batzuk biluzik ikusten dozuez.

doinua: Maritxu nora zoaz

Moises Jubilatuak gara
lehen eginak lana
oraindik ez dogu guk
ikusita dana.
Hondartza honek bazun
lehendik ere fama
ene lagun zaharra
hau da panorama.

8-7,5-7-7-7,5-7,5

Mañukorta Honuntza etorri gera
gu zerbaiten bila
hemen arkitu degu
gure barandila.
Gazte jendea dadukau
bero ta habila
bat'e erroparik gabe
hainbat neskatila.

7,5-6,5-7-6,5-6,5-7,5

Moises Hau ondo ikus gabe
ezin da geratu
baina honetarako
ez naiz preparatu.
Burua ilundu zait
ta ia erotu
eta beheko partetik
piska bat berotu.

7,5-7-6,5-6,5-6,5-6,5

Mañukorta Lehendik ere bagendun
hortako ardura
ta odol guztiak hor
igoak burura.
Zertarako gu ibili
horren apurura?
giro da ta neu ere
banoa potzura.

7-6,5-6-6-5,5-6

Moises Odola berotua
dator gaur nigana
ikusita hondartzan
dagon panorama.
Ene lagun zaharra
utzi daigun lana
behera bajatu eta
hartu daigun bana.

8-7-6,5-7-7,5-7

Mañukorta Hoiei begira pasatu
egun ta astiak
ia mobitzen hasiak
aitonen trastiak.
Bota daiguzen lurrera
erropa guztiak
ta besoetan hartu
aurreko gaztiak.

6-6,5-6,5-6-7,5-7,5

XABIER ARRIAGA "TXIPLAS" ETA JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

Gaia: Txiplasek, sasi-eskola besterik egiten ez dituen honek, zuri, Juan Mari, ikasle zintzo honi, kopiatzen izteko esan deutsu.

doinua: triste bizi naiz eta

Txiplas Zu beti izan zara
ikasle trebea
ikustekoa da gaur
daukazun fedea.
Ni berriz beti izan naiz
hori izan gabea
egingo al didazu
berriz mesedea?

5,5-6,5-6-5,5-5,5-5,6

Areitio Ni naiz ikasle zintzo
fin eta habila
liburuak etxean
ditut hamar mita.
Ta hau mendira joaten da
txorikumen bita
ikasi nahi ez badu
hor konpon dedila.

8-8-7-7-8-7,5

Txiplas Badakit ez naizela
ikasle argia
ta joko hau ez dela
niretzat garbia.
Baina konpartitu gaur
zeure izerdia
gutxienez utzi ba
kopiatzen erdia.

6-6-6-6-6-6

Areitio Gazte denbora honek
darama polito
bada klean honako
zenbait astopito.
Eskolara jun ez ta
egiten du kito
martxa hortan badabil
e'ingo da ministro.

6-7-6-5,5-7-6

Txiplas Alperrik eskatzea
hau ez da samurra
maisua berriz ere
niretzat egurra.
Zero edo hiru gaur
nota segurua
kanpoan hausi behar
dizkizut muturra.

7-6,5-5,5-5-4,5-4,5

Areitio Lagun hau ez dogu ez
ikasle txukuna
klean pasatzen du
gaua ta eguna.
Penagarria dogu
honek e'iten duna
nik zertarako diat
honako laguna?

5-6-6,5-6,5-6-7

IV
GARTZELAKO LANA

-LEHEN PUNTUA

Zelan igaro dozu
aurtengo urtea?

-HIBU BERTSO GURA DAN NEURRI ETA DOINUAN

Gaia: Pasa dan hilean zabaldu dabe Kanbon, Iparraldean, lehenengo Euskal Institutoa. Zure hiru bertsoak Batxillerra euskeraz egiten hasi diren neska-mutilei.

RIKARDO GONZALEZ DE DURANA

doinua: Maritxu nora zoaz

<i>Puntua</i>	Zelan igaro dozu aurtengo urtea?
<i>Rikardo</i>	ondo joan dela da daukadan ustea. Nola naizen oraindik nahikoa gaztea gaizki pasatzea ez al leike tristea?

5,5-5,5-6,5-5,5-6-5

GAIA

doinua: Begira nago jarria

<i>Rikardo</i>	Jo eta kean hasi ikasten gure hizkuntzaren alde hezi behar da lur honetantxe horrenbeste gizon trebe. Horri begira etxean gelditu gabe oraindikan bare egin gurearen jabe. (bitan) Ez gaitezen gu gelditu beti gure etsaiaren menpe ez al litzake buru jabeak izatea askoz hobe. (bitan)
----------------	--

5,5-5,5-6-6-6-5

Guziok lana egin duzue
hortako nola edo hala
ikusten denez hori ez bait da
batere lantxo apala.
Frantsesek gura lukete sartu
hortan bere martingala
gogorra eta zabala. (bitan)
Ez utzi inoiz ilunagotzen
euskaldunaren itzala
eta pentsatu horrekin soilik
oso gauza gutxi dala. (bitan)

5,5-6,5-7-5,5-5,5-5

Ezin da esan Euskal Herria
behin betirako akabo
nahiz ta agertu gure artera
zenbait fitxaje arraro.
Besten mendean nahiz ta hementxe
urte asko den igaro
erabat seguru nago. (bitan)
Zuen laguntzaz berreskuratu
dezakegula zeharo
borondaterik dagoenean
ezinikan ez bait dago. (bitan)

7-7-6,5-7-7-6

ABEL ENBEITA

doinua: Maritxu nora zoaz

<i>Puntua</i>	Zelan igaro dozu aurtengo urtea?
<i>Abel</i>	erdi gaixorik behintzat azkenengo partea. Nahi nuke aurrerantza hobea izatea Olentzerok badauka hor borondatea.

6,5-7-7-6,5-5,5-6

GAIA

doinua.: itsaso hori dago zatarra

Abel Kanbo aldetik hor oihartzuna
Euskadi danak gogoz entzuna
Instituto bat sortua dela
ta gainera euskalduna. (bitan)
Hara hor gazte laguna,
sarri eskatzen genduna,
ta gaur opatzen zaizuna,
ea zuekin gure Herriak
lortzen dun etorkizuna,
hor duzue, gaur, zuentzat horra,
guk ezin izan duguna. (bitan)

8-8-8,5-8-8-8

Egin zazue gaurkoz garrasi
urrats bat dela hor irabazi
nunbaitetikan behar genuen
euskaldun bidean hasi. (bitan)
Hara hau nik gaur lehenbizi,
neretzako da justizi,
zuek horla beti bizi,
Gure Herriak bere hizkuntzai
zuengan behar die eutsi
beraz euskaldun bizi zaitezte
eta euskaraz ikasi. (bitan)

7-7,5-7,5-7-6,5-7

Gogotik nator gaurkoz kantari
ta errazoiak ditut ugari
Instituto bat ta euskalduna
neska-mutilentzat sari. (bitan)
Baina hara hortik adi,
txintxo jarrai bideari,
martxa hau ezin da geldi,
nik zuentzako hauxen dadukat
agure baten opari
zuen eskuan daukagula guk
bihar etziko Euskadi. (bitan)

7,5-9-7,5-7,5-8-8,5

JON MUGARTEGI

doinua: Maritxu nora zoaz

Puntua Zelan igaro dozu
 aurtengo urtea?
Mugartegi udaran oso poliki
 gaizki elurtean.
 Beti ez gera aurkitzen
 zorion betean
 ea lasaitzen geran
 halako batean.

6,5-7-7-6-5-6

GAIA

doinua: mutil kozkor bat

Mugartegi Iparraldeko Kanbo horretan
 zertan daukagun bizitza
 neska-mutilak irakatsiaz
 egin nahi dute eskintza.
 Zorioneko izan dedila
 hartu dezuten baldintza
 Batxiler horrek merezi badu
 goiko mailako jakintza
 gu ere hemen ikasi nahirik
 aspalditxoan gabiltza.

7,5-7,5-6,5-6-5,5-6

Neska mutilak preparatutzen
 ari dira lanerako
 egunez gauak pentsatu eta
 gauza onak ondoreneko.
 Hau ikustean nere bihotzak
 ezer ez du kalterako
 batxiler hori izan dedila
 jakintsuen mailarako
 eta egiten dezuten lana
 Euskadiren onerako.

7-7-7-7-5,5

Gogor samarrik badago ere
 bihotza nahi det samurtu
 lehendabiziko neska-mutilok
 zorionean agurtu.
 Zuen lanari jarraitu zintzo
 bide onik ez laburtu
 laguntzarikan behar badezu
 eskatutzero ausartu
 kontzientzia begiratuta
 euskal giroan alkartu.

5-6,5-7-6-6-6

MOISES ENBEITA

doinua: Maritxu nora zoaz

Puntua Zelan igaro dozu
 aurtengo urtea?
Moises bere barnean bazan
 nahikoa nahastea.
 Baina pentsatzen dot nik
 hor irabaztea
 bizitzai aurre egin
 naiz eta gaztea.

5,5-5,5-6,5-5,5-5,5-5

GAIA

doinua: aita izena kanta beharrak

Moises Zein atsegina euskaldunontzat
 Bernardo zure barria!
 euskera bait da euskaldun danok
 lotzen gaitun lokarria.
 Iparraldean Instituto bat
 hori gauza pozgarria
 horretarako aspalditikan
 genduen guk egarria
 ez al da hori bide onetik
 goazen ezaugarria? (bitan)

7-8-8-7-7-7,5

Iparraldean piztu da beraz
euskerarentzat izarra
orain arte lez jarraitzea zan
Herri honentzako larra.
Neska mutilok jokatu zintzo
daukagu zuen beharra
euskera ondo ikasi eta
agertu zuen indarra
egun batean alkartzen diran
Hegoa eta Iparra. (bitan)

7-7-7-6,5-6-7

Hau entzutean urruntzen jaku
apur bat gure ikera
euskeran alde neska mutilak
hor ikusita batera.
Ez daigun beraz alperrik galdu
emon dauskuen aukera
liburu danak hausnartu eta
hola jarraitu aurrera
hori egiten dogun artean
ez jaku hilgo euskera. (bitan)

5-8-7,5-7-8,5-7,5

GREGORIO LARRAÑAGA "MAÑUKORTA"

doinua. Maritxu nora zoaz

<i>Puntua</i>	Zelan igaro dozu aurtengo urtea?
<i>Mañukorta</i>	jatorra hau izan da ona ta betea. Jaungoikoak eman dit neri subertea gizon txarrak beti du hor borondatea.

6-5-6-5,5-5,5-5,5

GAIA

doinua: lagundurikan danoi

<i>Mañukorta</i>	Hortik zabaldu dira lehenengo burpilak jende argiak gera gainera umilak. Gu zertarako egon euskeraz isilak? horretarako daude ikastola pilak ta zoriontzen ditut neska ta mutilak.
------------------	---

7-7-7-7-6,5-6

Batxiler horretatik
badator aukera
gazteak ikasteko
harte dute era.
Zuzen joka zazute
hemendik aurrera
ea baztartzen degun
apur bat erdera
ta indartutzez jarri
maite de'un euskera.

6-6,5-6,5-7-7,5-6

Gazte on asko daude
indartsu ta gordin
Iparralde haretan
ta Hegoan berdin.
Euskadi jarri daigun
euskaldunen jardin
ikasita euskera
mintzo ere berdin
indar bat izan daigun
guk geure Euskadin.

4-5-6-5-4,5-4

XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"

doinua: Maritxu nora zoaz

<i>Puntua</i>	Zelan igaro dozu aurtengo urtea?
<i>Txiplas</i>	ondo Txapelketa hau hurbildu artean. Hau hasi ta ondoren hor nabil nekean baina poz haundi bat dut bien bitartean.

6-6-6,5-6-5,5-5

GAIA

doinua: sentimentua sartu zitzaidan

Txiplas Albiste on bat entzun nuen nik
 irradi batetan danba
 ta hemendik neuk egin nahi nuke
 golpera hor propaganda.
 Lehen Hegoan ta Iparrera ere
 heldu zaio bere txanda
 ezin leike inoz mutil ta neskak
 galdu horrelako ganga
 albiste hori guk entzuteko
 ia sasoia izan da. (bitan)

7-7-7-7,5-7,5-7

Nere iritziz han bazegoen
holako baten beharra
ta gauza hori bene--benetan
izan da oso edarra.
Iparraldean ere euskerak
antza hartua du garra
gorantzta doa apurka-apurka
hizkuntza honen indarra
ea horren bidez batzen ditugun
Hegoa ta Iparra. (bitan)

7,5-7,5-7-8-8,5-8,5

Hargatik hemen gorantzta doa
gure Herriko esperantzta
nahiz ta askotan pasatu behar
une estu eta latza.
Orain ezin da gelditu horrela
bidean daukagun martxa
nahiz badakigun hauxe dogula
betidanik oso gatxa
baina hizkuntza dugu Herriak
beti dadukan ardatza. (bitan)

6,5-7-6,5-8-6,5-6,5

JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

doinua: Maritxu nora zoaz

Puntua Zelan igaro dozu
 aurtengo urtea?
Areitio Ez degu izan behintzat
 nahigabez betea.
 Orain arte izan det
 nahiko suertea
 izan det zoriona
 nahi ta ez bakea.

7,5-6,5-7,5-7-6,5-6

GAIA

doinua: egun lanerat abiatu zait

Areitio Pozgarria da beraz Kanbotik
etorri zaigun barria
gure Hizkuntzaren egoera da
oso triste ta larria.
Baina eskola haundi bat bada
orain han nunbait jarria
hor ikusten da indartzen doala
gaur gure Euskal Herria.

6-6-6,5-6,5-5,5-6

Euskal Herrian hainbeste urte
sufritzen eta penetan
gure kultura hor ikusi da
etsai gaiztoen oinetan.
Baina piskanaka indartzen doa
joan dan aspaldi honetan
hartu dezuten bide hortatik
jarrai zazute benetan.

7-7-7-7,5-7-6,5

Poza sortuko zaizkie mugaz
handik dauden gazteari
zelako berri pozgarria dan
hori bai degu nabari!
Laguntza eman gure Kultura
baita gure euskarari
mila zorion lan hortan jardun
diraden euskaldunari!

6,5-6,5-6,5-7-6,5-6

JOSE LUIS BASTERRETXEA "ALTZALEI"

doinua: Maritxu nota zoaz

Puntua Zelan igaro dozu
aurtengo urtea?
Altzalei nere ustez izan da
zeharo tristea.
Asko kostatu jata
berari eustea
hobea izango al da
ondoren bestea?

5,5-6-7-6,5-6-6

GAIA

doinua: aita izena kanta beharrak

Altzalei Frantses giroan orain artea
Iparraldea hezia
horretan badu etsai gaiztoak
guretzako malezia.
Etorkizuna zuri nahi bada
ai zer gauza itsusia!
gazte hoieri zorion bana
daukazue merezia
Iparraldean zuek zarie
etorkizunan hazia. (bitan)

7-6,5-6,5-7-6-6,5

Etorkizuna egoten bait da
gure artean presente
euskaldun gitxi gara danera
baina batzuk oindik tente.
Institutoak guretzat badu
eta hainbeste birtute
aurrerantzean antzera baten
horrela jarrai zazute
ta kopurua haunditu bedi
gerorantza urtez urte. (bitan)

7-7,5-7-5-6,5-7

Garai batean ez zan izaten
era hortako aukera
ta nola gero etortzen ziran
guri edozer esatera.
Hazitxo hori geroxeago
igual lorea ote da
Lizeo hortan zaindu zazue
euskaldunon izakera
askatasuna lortuko bait da
euskalduntzeaz batera. (bitan)

7-7-7-8-7-7

AZKEN AGURRAK

doinua: hiru bertsotan eman nahi ditut

Rikardo Agur guziori, barkatu baina,
bazkaltzeko ordua da
eta holako eginkizunik
bete gabe ezin laga.
Goretsi nahirik behar bezala
Bizkaia eta Araba
abenduarien hogeian denok
Arriagan egongo gara.

doinua: Pello Joxepe

Abel Durango aldean jarri ziguten
listoia altu ta karu
gaurkoz ez dakit portatu garan
haiek hainbeste ondradu.
Iganderako Arriagatik
dei zital hori daukagu
entzule baino ez bada ere
handik izango gara gu.

doinua: Pello Joxepe

Mugarategi Bide berean segitzen degu
galdu edo irabazi
hori pentsatuz gu Txapelketan
nolatan ginaden hasi.
Eskerrik asko bihotz bihotzez
hori ezin galerazi
zorioneko esker bero bat
eskeintzen diot Gasteizi.

doinua: Pello Joxepe

Moises Agur ta erdi entzule ona
txaloagaitik eskerrak
ezer gehiago ezin zun emon
gure zentzunan bazterrak
Entzun dozue bertso mordo bat
zuzenak eta okerrak
inortxok behintzat ez dau esango
izan geranik alperrak.

doinua: kantore berri xarmant óatzuek

Mañukorta Honenbestekin bukatutzen da
gure bertsoen jarduna
nahi bezain ondo gaur ez da egon
Mañukortaren zentzuna.
Baina guztiak barkatzeko aina
bada jende euskalduna
huts egitea barkatu, agur,
ondo pasatu eguna. (bitan)

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Txiplas Hemen kantari ibili gara
 guztiok ekinahalean
 oso gustora ta bero bero
 zuen txalo magalean.
 Baina kokoak eginda dagoz
 ia gure sabelean
 orain bazkaltzen goaz horrantza
 Mañuren kuartroolean. (bitan)

doinua: dama askoren againagarri

Areitio Bazkalduteko beraz oraintxe
 omen da ordu bikaina
 gure saio hontan egin dogu
 ahal izan degun ekina.
 Behar dan neurririkan ez gendun
 guk hemen emango baina
 nik ere badet unibertsitate
 baterako gaur premina.

doinua: zure Babel barruan

Altzalei Etorri gara bertsoz
 zerbait azaltzera
 egindakoarekin
 berriro etxera
 bertso honekin noa
 danak agurtzera
 goseak alde orduko
 goazen bazkaltzera.

PUNTUAKETA

Badakizue azken aurreko saio bi honetatik zazpi direla azkenera pasatzen diren bertsolariak. Jon Lopategi gehituz, zortzikotea beteko dabenak datorren iganderako.

Arazo txiki bat sortu da, hau da, enpate bat. Lehenengo eta behin gaurko puntuaketagaz joango gara, eta honako hau dozue:

Rikardo Gonzalez de Duranak	434	puntu
Abel Enbeitak	481	puntu
Jon Mugartegik	468,5	puntu
Moises Enbeitak	499,5	puntu
Mañukortak	449,5	puntu
Xabier Arriagak	474	puntu
Juan Mari Areitiok	499,5	puntu
Altzaleik	491	puntu

Beraz, konturatuko zineen batzuk. Dena den, hemen dira finalerako seguru dauden batzuk: Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Haritz Lopategi, Elgetzu eta Azpillaga. Honeek bostok seguruak dira.

Eta orain beste hiru ditugu, puntu berberakaz, hain zuzen, Ireneo A,juria, Moises Enbeita eta Areitio. Hirurak 499,5 puntugaz. Oraintxe bertan erabakiko da gai baten bidez, hirukote honetatik zein bikote pasatuko dan aurrera.

Dena prest dago eta desenpate honetako lana gai bakar bateri hiruna bertso kantatzea izango da. Kantatzeko ordena, hauxe: lehenengoa Ireneo Ajuria, Moises Enbeita bigarrena eta Juan Mari Areitio hirugarrena. Ireneo ustekabeen harrapatu dogu eta nahiz eta saioaren azkena izan, agurtxo bat botako du eztarri hori apur bat tenplatzeke.

doinua: kantore berri xarmant batzuek

Ireneo Ez da pentsatzen zer gertako den
aurrez lasai kantatzean
baina eztabaida sortu daiteke
bere garaia heltzean.
Eta honera igona naiz gaur
gainera naiz hotz hotzean
baina kantatu beharko det nik
ezer badet bihotzean. (bitan)

DESENPATEA

GARTZELAKO LANA

-HIRU BERTSO GURA DAN NEURRI ETA DOINUAN

Gaia.Reagan eta Gorbachoven arteko paktoa.

IRENEO AJURIA

doinua: aita izena kanta beharrak

Orain artean jarri diote
munduai nahiko katerik
langilerian artean bada
munduan nahiko kalterik.
Gaur mereziko ote du hemen
gauzak hausnartzen hasterik?
pakto hori dala eta ez dala
danok arduraz beterik
bi gizon hoien artean ez da
faltsokeria besterik. (bitan)

Izparringiak ta telebistak
ematen dauste grazia
hoien paktoa lehendikan degu
oso ondo ikusia.
Jokabide bat baino ez dauke
nor geldituko nausia
ta bitartean munduan zehar
ezbehar edo gosia
gauza horretxan errudun dira
Amerika ta Rusia. (bitan)

Langileri ta askoren berbak
ez dira aurkitzen isilak
bi otso daude gure gainean
gu ezin egon trankilak.
Langileriak lehen bezalaxe
menpetu eta isilak
zer gauza guri dakargue orain
batuta dauden mutilak?
pakto onena ez al da hemen
ez egitea misilak? (bitan)

MOISES ENBEITA

doinua: aita izena kanta beharrak

Amerikarrak eta rusoak
munduan badabil nahaste
gaur arte behintzat hoiengandikan
guretzat ez irabazte.
Pakto haundiak batzuen ustez
hortikan egin dituzte
arma batzuek kenduta dana
lortu dutelako uste
munduan zehar oraindik bada
arma piloa hainbeste. (bitan)

Munduan bada neure ustean
armak kentzeko premina
nahiz ta orain hoiek danen aurrean
itxuraz e'in ahalegina
Heurengandikan sortua dogu
munduko gerra zikina
ta orain gitxi deritzat behintzat
agertu daben ekina
beste mundu bat izango gendun
hoiek zintzoak bazina. (bitan) (sic)

Gorbachov eta Reaganegaitik
dago mundu itsusia
hoiek ez dute bakerik gura
ta beti jartzen hesia.
Orain artean gerraren alde
da egin daben guzia
heuren partetik mundu guztian
hori dago ikusia
askoz hobeto sortu ez baziran
Amerika ta Rusia. (bitan)

JUAN MARI AREITIO

doinua: galderatxo bat egin didazu

Mundu honetan aspaldi baten
nunahitik dator ekaitza
konpondu nahian dabilta nunbait
mundu ondoko bizitza.
Errusi eta Ameriketan
hor alkarturik dabilta
ez dakit nolakoa izango dan (bitan)
horrek dakarren emaitza.

Nabaritzen det amerkarren
politikari zikina
alde batera eginkizunak
beste aldera mingaina
Mundu triste hau ikusten dogu
hor inpernu bat egina
ia zertxobait konpondutzeko (bitan)
badago behintzat premina.

Pozgarria da indar haundi bi
hola alkartuta ikustea
eta zertxobait lortuko dala
hori da nire ustea.
Zenbat aldetan sortzen zaizkigun
hemen sua eta kea
denon artean behin betirako (bitan)
lortu dezagun bakea.

PUNTUAKETA

Ireneo Ajuriak	122 puntu
Moises Enbeitak	99 puntu
Juan Mari Areitiok	124 puntu

BILBO

87-12-20

bertsolariak
HARITZ LOPATEGI
XABIER AMURIZA
IRENEO AJURIA
JON ENBEITA
JON LOPATEGI
JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"
JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"
JON AZPILLAGA

Bizitzan sarritan gertatzen dan bezala, barriak kolore bitakoak izaten dira, eta gaurkoan bere, kolore bi horeek aitatu beharra daukagu.

Alde batetik tristeakaz hasiko gara gero alegreakaz jarraitzeko: badakizue gehienok Abel Enbeitaren emaztea istripuz hil jakuna. Ez dau komentario gehiagorik behar. Gaur arratsaldean Abornikanon izango dita hileta eleizkizunak lau t'erdietan eta gorpuari lur-emotea, Durangon, sei t'erdia aldera gitxi gorabehera. Zertan esanik ez, sendi osoak, bai emaztearenak eta bai Enbeitatarrenak jakin dagiela atsekabeen lagun garala guztiok.

Eta esandakoak esanda, goazen alaietara. Gaur bertsozaleok zorionean gagoz beste aldetik saio punta puntako bat esku artean dogulako. Hemen diralako gure Bizkai-Araba aldeko gogorren jokatu daben bertsolariak. Eta halako saio batek merezi eban bezala, tolda ere horrelaxea aukeratu dogu, Bilboko Udalari esker, Arriaga Antzoki hau.

Araba-Bizkaiko zortzigarren Txapelketa hau, orain bi hilabete hasi genduen Bermeon, eta ordutik hona, hogeitahamar bertsolari eder dantzatu izan dira bertsoz bertso, zein toki eder honetan aulkia aukeratuko.

Azkenik, hor goian, erdi estalpean dugun epaimahai horrek, bertsoak zehatz zehatz jorratuz, honako honeek izan dira aukeratu dabezenak: Haritz Lopategi; zerbait esatekotan gaurko talde honetan eta Txapelketa honetan izan dogun seina, gure Haritz. Nork ez dau ezagutzen Xabier Amuriza?. Ireneo Ajuria. Eskertzen deusagu danaren ganetik hemen egotea: Jon Enbeita. Orain arte izerdi gitxi bota dauan gizona, baina gaur bota beharko dauena: Jon Lopategi, dakizuen lez, azkenengo Bizkaiko Txapelketako txapelduna. Jose Luis Mugerza "Elgetzu". Zazpigarren hori: Juan Mari Areitio, eta egia esan, gaur bere Aita Santu itxuran, Jon Azpillaga.

Gorputzean ez daukagu hotzik. Eztarrian beharbada oraindino lar berorik ez. Eztarriok apur bat lasaitu daiguzan. Bertsolarien agurra, zutik. Haritz Lopategi, hasi.

AGURRAK

doinua: Ama birjina Erkundekoa

Haritz Gaur Arriagan alkartu gara
jokatu nahirik finala
kotrarioak ikusi eta
zuri jartzen jat azala.
Handia bait da gizon hauexek
egiten daben itzala
halan ta guztiz saiatuko naiz
kantatzen heurak bezala.

doinua: Anton eta Maria II

Amuriza Teatro honek nozbait
egon behar eban
kategori apur bat
hartzeko aukeran.
Sesinoa hasten da
suspentse minberan
laster ebatziko da
geuk bagenki zelan!
gure txapel maitea
nogaz ezkontzen dan. (bitan)

doinua: 2
Ireneo

Ongi etorri eta egunon
zuri entzule euskaldun
ahal dan bestean beharko gara
bertsoak kantatzen jardun.
Apustu hontan zortzi aktore
iritxi gara gaur egun
borrokatzeko animuz gatoz
baina hala ere lagun
final honetan egun eder bat
ea pasatutzen degun.

doinua: bizia ez da nehoiz egoiten

Jon Enbeita Badakizute zer gertatu zen
ostiral gau ilunean
damu nindeke ezinda jakin
etortzeaz azkenean.
Laino garratz bat nagusi bait dut
bihotzaren barrenean
baina biziak aurrera behar
ahal dugun arte lanean
izan dadila bertsolaritza
ta euskararen onean. (bitan)

doinua: bizi guzian borroka baten

J. Lopategi Senarrarekin hortan zebilen
sekulako afanean
ai zer tristura sentitzen dogun
mundutik joan danean!
Famili dena negarrez eta
zu derrigorrez lanean
bertsozaleok lagun gaituzu
pena ta atsekabeen.

doinua: bizi guzian borroka baten

Elgetzu Gaur alkarrekin ditugu beraz
hainbat desgrazi eta poz
era horretan bizimoduak
laztantz gaitu gu inoz.
Halan ta ere jarraitu behar
ahal degun artean gogoz
Arriagara horregatikan
dena ematera gatoz.

doinua: mutil kozkoz bat

Areitio Entzule danoi agur eginaz
helduko diot lanari
estuasunen taupadak hemen
dirade ondo nabari.
Hala ta ere buruan ditut
oroitzapenak ugari
desterruan ta espetxeetan
hainbeste euskaldun gudari
Arriagatik besarkada bat
baltzen diet danari. (bitan)

doinua: ari naizela ari naizela

Azpillaga Egunon denoi ondo zagozte
bakoitza bere aulkian
gaur Arriaga beteko zafa
segur aski banakian.
Bertsozaleak ibiltzen gara
zoriontsu ta bakian
egun eder bat pasatu daigun
bertsoaren aitzakian.

ZORTZIKO NAGUSIAN

HIRUNA BERTSO

HARITZ LOPATEGI ETA XABIER AMURIZA

Gaia: Gaur zuek biok periodikora joan zaree anuntzio bana jartzera: zuk Haritz baserria saldu nahi dozu eta zuk Xabier baserri bat hartuko zeunke.

doinua: basatxoritxo moko luzea

Haritz Anuntzio bat jartzea pentsau
neban nebala hobeto
periodikoak beti bait dauka
makina bat errespeto.
Zu ikusten zaitut baserritxo bat
oso gogoz erosteko
baina ez dakit balio duzun
baserritar izateko.

6-6-7-5,5-6-6

Amuriza Balio bako baserritarra
dinozu dirala batzuk
zeozergatik saltzeko asmoa
hartuko zendun baita zuk.
Hasieratik hasarrau barik
bihotzetik nik dinotsut
lartxo eskatzen ez badaustazu
pozik erosiko dautsut.

7-7-7-8-7,5-6,5

Haritz Nik baserrian hainbeste urte
eginak ditut igaro
baina gaur egun ezin diteke
han bizi oso oparo.
Hau zapata ta trajea eta
korbata batekin dago
baserrian lan egin behar da
kalean baino gehiago.

6,5-6,5-6,5-5,5-6,5-6

Amuriza Ez pentsa gero ni nagoanik
lan larregiri begira
badakit zelan atxurrai eta
beste erremintari tira.
Gustora etorko nintzake barriz
kale hortatik mendira
gero hildakoan joan gura neuke
baserritik hilobira.

7,5-7-7,5-7-6,5-6

Haritz Itxura horrekin zihur zaudela
hainbeste diruz beteta
baina alperrik dauzkazu lagun
banku batean gordeta.
Zu mendikoa ez zara eta
jarriezazu arreta
abarkak ere eros itzazu
beharko dituzu eta.

7-7,5-7-8,5-7-7

Amuriza Honekin tratu onik egiten
gaur etxecoat* hain errez *ez jekoat/daukot
anuntzioa jartzera etorri
ta dana bota aldrebes.
Hartuko dautsut baserri hori
jatorra bazina legez
baina sasiak eta zimaurreak
zeugaz eroan mesedez.

8-7,5-8-8-7,5-8

IRENEO AJURIA ETA JON ENBEITA

Gaia: Ireneo, zu anbulantzia baten hilzorian zoaz eta zu Jon anbulantzia horretako txoferra zaitugu. Tamalez trafiko arazo haundiak dagoz eta anbulantzia lotuta dago.

doinua: kantore berri xarmant batzuek

Ireneo Pentsatu lagun nolakoa dan
nik daukadan egoera
estimatzen dut neri laguntzen
ondo etorria zera.
Stop batean hementxen gaude
ez atzera, ez aurrera
ahal danik eta azkarren lagun
eraman hospitalera. (bitan)

7,5-7-7-7-6,5-7

Jon Enbeita Zer dala eta ez dakit baina
aurrean bada algara
ezin pasatu, zu hilzorian
lagun hau ez da patxara.
Ahal dan azkarren ni joango naiz
tokirik libratzen bada
ez dut parkatu izango inoiz
hementxe hiltzen bazara. (bitan)

7-7-7-7-6-7

Ireneo Gerta daiteke esan dezuna
eta ez zaite harritu
baina hala ere zure puestuak
badauka nahiko meritu.
Istripu askok ondoren honek
berekin ekartzen ditu
ta zure kulpa ez da izango
eta ez zazu sufritu. (bitan)

7,5-7,5-7-7-6,5-7

Jora Enbeita Nahiko ez al da hilzorian den
lagunak duen samina?
nola asetu trantze honetan
nire bihotzeko grina.
Hauxe da, jaunak, lagun on bati
lagundu nahi ta ezina
zu lasai egon egingo dut nik
ailegatzen ahalegina. (bitan)

8-7-8-7-8-7,5

Ireneo Gauza horiek bete ezker
hi bapo portatuko haiz
kaminoan dan iskanbila hau
guri gertatzen zaigu maiz.
Hospitalera ez banaiz heltzen
bizi izateko garaiz
emazteari mosu bat eman
kaminoan hiltzen banaiz. (bitan)

7,5-7-7-6,5-6-7

Jon Enbeita Ez zera lagun hain errez hilko
ta zaude arren trankila
kotxetik irten ta joango naiz
zure laguntzaren bila.
Baina atasko hau zuzenduteko
nun demontre da agoazila?
oindik gaztea da ta Jainkoa,
oraindik bizi dadila! (bitan)

6,5-7-7,5-7-7-7

JON LOPATEGI ETA JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

Gaia: Jon,: zuri aittitta zahar horrer, zure loba gazte honek, Elgetzuk, zera esan deustu siku sikuan: "egon isilik ezer ez dakizu ta".

doinua: bizi guzian borroka baten

J. Lopategi Niri grazia egiten dost gaur
gure iloben ekinak
heuren burua erakusteko
hainbesteko ahaleginak.
Gauza batzuek halan ta guztiz
dagoz eroan ezinak
ai zer harroak urten jakuzan
gure iloba ziztrinak!.

8-7,5-8-8-7,5

Elgetzu Iloba ziztrin honek aitona
beti izan du bere maisu
baina aspaldi makaltzen doa
memoritik dago izu.
Halare mingain azkarra dabil
beti sermoi ta abisu
asko ikasi zendun gaztetan
gehienak ahaztu zaizkizu.

8-8-8-8-7-6,5

J. Lopategi Hona gaur zelan agertzen jakun
lotsabako eta mamu
nik ondo dakit zelan ornitu
gaurko zenbait egitamu.
Nahiz ta sarritan bihotz erditik
izaten nauzuen damu
mundura ez zinan zu etorriko
nik ezer jakin ez banu.

8,5-9-9-8-9,5-8,5

Elgetzu Lehen esan dizut bazenkiala
ta sortu garai onean
baina aspaldi galtzen zoaz zu
memori ederrenean.
Eta gustora egoten naiz ni
beti zure aldamenean
baina gehiago maitetzen zaitut
isilik zagozenean.

7-7,5-8,5-8-8-7,5

J. Lopategi Hori da iloba esker gaiztoak
aitonari esatekua
zuk hartu dozun heziketa hori
ez ote da kaltekua.
Berba jarioz neuk jardun behar
zu hain zaitugu ketua!
lehen ikasi behar dozuna
zaharrentzat errespetua.

8-8,5-8-8,5-7,5-7

Elgetzu Ni ez nioa aitona zaharra
 mundu hontan baztertzer
 maitatuko det lehenago berak
 maitatu nauan antzera.
 Baina ez zazu hainbeste hitz egin
 arren hitzetik hortzera
 ordua da ta amonarekin
 zoaz oin errezatzera.

7.5-7,5-8-8-8-7,5

JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

ETA JON AZPILLAGA

Gaia: Gabonak direla eta, zuek senar-emazteok Bilbora etorri zaree erosketak egiteko asmotan. Zuk Juan Mari, senarrak, Parte Zaharrera joan nahi dozu, eta Azpillagak, oster, Corte Inglesera".

doinua: bizi guztian borroka baten

Areitio Bilbora etorri eta andreak
 hor bota deusta golpia
 ez da komeni zure gonaren
 mende beti egotia.
 Beraz nahi dezu Corte Inglesera
 zerbait erosten joatia
 baina nere ustez Parte Zaharra da
 euskaldunaren tokia.

6,5-7-7-7-7-6,5

Azpillaga Aspalditikan ondo nekien
 senar jaun honen gradua
 beti tabernai begira dago
 bere zentzun ta burua.
 Zure galtza ta nere soineko
 falta da erropa mordua
 lehengo astean erosi nitun
 turroia eta ardua.

7-6,5-7-7-6,5-7

Areitio Turroia eta ardoa behar
 ditu zure koloriak
 baina sarritan horrek nahastutzen
 ditu gure memoriak.
 Parte Zaharrean dira txokoak
 beste inun baino hobiak
 tabernak eta dendak dituzu
 polit eta dotoriak.

7-6,5-7-6-6,5-6

Azpillaga Gizonak zeren ustetan dauden
lehendik gagoz igarriak
Zazpi Kaletan sartu artean
egoten dira larriak.
Corte Inglesen kendu litekez
goseak ta egarriak
zutzat prakak erosi nahi ditut
ta kantzontzilo barriak.

7-7,5-7,5-7,5-6,5-6

Areitio Nere emazteak beti izan du
harrokeriaren gripa
dirudi honek ez dakit nungo
dama edo Ama Birjina.
Baina zuk dezun asmoa daukat
inola onartu ezina
Parte Zaharrear ere badago
zutzat eta nitzat aina

7,5-6,5-6,5-7-6-6

Azpillaga Ezkondu ginan baina izatez
ez gera oso berdinak
lehenago ere zenbat gauz diran
zuregatikan eginak.
Zuretzat daukat karino dana
etxeko Ama Birjinak
ni izan ez banintz fango zinduan
ugerrak eta zikinak.

8,5-8,5-8-8-7,5-6

II

ZORTZIKO TXIKIAN

HIRUNA BERTSO

JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

ETA IRENEO AJURIA

Gaia: Afrikara safari batera joan zara Elgetzu eta hogeitaz urtean ikusi ez dozun Ireneo, lapiko barruan ikusten dozu, beltz guztiak dantzat dabiltzala.

doinua: .xarmangarria zera

Elgetzu Nola aldatzen zaigun
bizitzaren malda
lapikoan sartuta
ura dago galda.
Azkar egingo dute
gaur zurekin salda
neretzat haragirik
sobratuko al da?.

8,5-8-9-8-7,5-8

Irerceo Patxadan jarriko naiz
zurekin a'itzeko
nik umore asko ez det
hola bizitzeko.
la gutxi falta zait
berton gelditzeko
zu ez al zinan joan
lehenao etortzeko?.

6,5-7,5-7-6,5-6,5-6

Elgetzu Honantza etortzea
zendun erabaki
eta horra bihotza
egin mila zati.
Orain sartu eltzean
ta beltzak eduki
ze igarrak dagoen
nik diet erruki!

7-6,5-7-6-6-6

Ireneo Ni inguratu naute
egur su ta harriz
aurrean ditut nere
okelan egarriz.
ta lagun zu txantxetan
zertarako zabiltz?
laguntzen ez bazatoz
joan zaitez berriz.

6,5-7-7-6,5-6,5-7

Elgetzu Hor uzterik lagunak
ez arren zuk uste
kolpean zu beltz hauek
soltauko zaituzte.
Haragia bait daukat
nik kamio bete
ha ikusitakoan
laister zara aske.

6,5-7,5-6,5-7-6-6,5

Ireneo Jarri nauzu laguna
arduraz beteta
laguntzen etor zaite
ia naiz erreta.
Gu jatea da heurak
dauken ameseta
salbatu nagizu gu
zuriak gara ta.

6-7-6,5-6-5,5-6

JON AZPILLAGA ETA HARITZ LOPATEGI

Gaia: Neska lagun bi zaree zuek biok; zu, Jon Azpillaga, bion artean politena zara, baina, mutilez inguraturik dabilena Haritz da".

doinua: xarmangarria zera

Azpillaga Zure pasadizua
lehendik det entzuna
zu zara itsusia
nik edertasuna.
Baina mutiletan zer
galga daukazuna!
neska, zer ote da zuk
emoten dozuna?.

7,5-8-7-7,5-7,5-6,5

Haritz Nik mutil asko dauzkat
ezin naiz lotsatu
egun batean egin
bait nintzen esnatu.
Hau mutil batek ere
ez du gura hartu
ezin bait dezakete
ondo manejatu.

6-7-6-6,5-6,5-6

Azpillaga Hemen zer gertatzen dan
daukat ikusia
ni naz neska ederra
ta zu itsusia.
Berak ditu hitz, musu
eta igurtzia
emoten dautsazue
nahi daben guzia.

8-7-8-7-7,5-7

Haritz Mutilak konkistatzen
da gure borroka
ta zu ikusten zaitut
hor zeatz lur jota.
Mutilak heuragandik
e'iten dabe bota
neurri hortako mutilik
bat be ez dago ta.

6,5-6-6-6-6,5-5

Azpillaga Ez det nahi joan nere
fama onak galtzera
neskaren ondraz azkar
e'iten dau atzera.
Orain bezela beti
ibiltzen bazera
azkenean bakarrik
geldituko zera.

6,5-5-6,5-5,5-6-6

Haritz Niri mutil guztiek
e'iten dauste kasu
beraz zuk ere lagun
ikasi ezazu.
Nola ez dozu eukiko
hainbeste arazu?
atzetik be mutila
iruditzen duzu.

6-6-6-5,5-7-6

JON ENBEITA ETA JON LOPATEGI

Gaia: Jon Enbeita, zu, oraingo honetan magoa zara eta zu Jon Lopategi mago honen kapelan dagoan uso zuria.

doinua galerianoarena

Jon Enbeita Uso zuri maitea
magoen kutuna
mundu guztiak hainbat
maitatzen zaituna.
Iritxi da kanpora
joateko eguna
bakez bete ezazu
herri euskalduna.

8-8-8-7,5-7,5-6

J. Lopategi Nigana heldu zinan
zu behin pausuz pausu
geroztik izan ditut
hamaika abusu.
batzuentzako ni naiz
pakearen usu
zuk diru egiteko
esplotatzen nauzu.

8,5-8-9-8-7,5-8,5

Jon Enbeita Zurekin hainbat diru
manejatzen nengon
baina Herria ere
nahiko triste zegon.
magoak ere noizbait
behar du bihotz on
joan ta denei emon
gaur bakezko gabon.

7,5-7-8-8-6,5-6,5

J. Lopategi Esan dau honek baina
guzurra galanta
onena izango dot
nik albotik salta.
Madarikatua zu
magoen estanpa
zergatik narabilzu
guzur eta tranpa?.

7,5-8-8,5-8-8-8

Jon Enbeita Gaur arte egin zaitut
nahikoa igurtzi
baina magokeria
behar dut ehortzi.
joan ta munduari
pakea erakutsi
kontuz ibili ta ez
berriz lotzen utzi.

8-7,5-8-8-7,5-7

J. Lopategi Nire luma zuriak
badauke dizdira
badakit gizon hoiek
zer daben desira.
Amaitu dot magoa
zurekiko jira
pakearekin noa
neure Euskal Herrira.

8,5-8-9-8-8-8

XABIER AMURIZA ETA

JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

Gaia: Zuk, Xabier, txakur-korotza zapatatetik garbitu ezinean zabiltzala, hara non datorren Juan Mari Areitio hau txakur dotore batekin paseoa.

doinua: egun batean joan zan

Amuriza Hemen alkartu gara
Juan Mari ni ta zu
txakur korotza eta
txakur bat daukazu.
Holako animala
habila badozu
nire zapata zahar hau
mizkau era'iozu.

8-8,5-8-8-8-7

Areitio Ez det hartzen egia
esaten dun trazik
txakur honek inori
ez dio egin gaitzik.
Ta hemen ez zazu bota
horrelako hitzik
honek ez du egiten
korotz eta pixik.

7-7,5-7-7,5-7-7

Amuriza Esan dozuna ez dozu
sinestuko zeuk be
baina milagro hori
igual gerta leike.
Halan bada gustora
ikusiko neuke
txakurra hartuko deusut
zapataren truke.

8-8,5-8-7,5-8,5-8

Areitio Txakur hau ez daukat nik
ondotik kentzeko
neugaz hartu bait nuen
neugaz bizitzeko.
Txakur hau nola euki
nik zuri saltzeko
hik ez dek kategorik
honaz* ibiltzeko. *honegaz

6-6,5-6,5-6,5-5-7

Amuriza Kategoria ederra
ezin dozu laga
jenioz nago eta
kontuz badaezbada.
Hemen korotz kontuan
arrimatu gara
zeuk miskau behar dozu
txakurrak ez bada.

7,5-8-8-6,5-7,5-8

Areitio Gizon honek nun dauka
horrenbeste gradu?
zapata politakin
txukun ta ondradu.
Baina piskaterako
korotz hori badu
Bilboko alkate dala
pentsatutzen al du?

8-6,5-6,5-7-7-7,5

III

BAKARKA

SEI EDO SEI.PUNTUTIK GORAKO

ETA ERRIMA BEREKO

BINA BERTSO.

HARITZ LOPATEGI

Gaia: astelehen goizeko despertadoreari

doinua: gai horrek badu mamia

Haritz Asteburuan izaten
dira nire afanak
alde batera utzirik
lehengo eguneko lanak.
Astelehenez esnatzeko
esaten dausta amak
beraz ahaztu egin behar
ordurarte izanak,
trasto honek esnatzen dauz
bere inguruko denak
soinu horrekin harten dira
arte osoko penak. (bitan)

8-8-7-7,5-7-7,5

Domeka edo astelehena
ez da izaten bardina
gaur goizean altxatzeko
e'in behar ahalegina.
Logura izaten naz beti
eta ez da atsegina
baina jeiki egin beharrak
niri ematen daust mina,
soinu horrekin altzatzea
niretzako ezina
hobe egunen batean
estropeauko bazina. (bitan)

7-7-7-6,5-6-7

XABIER AMURIZA

Gaia: Xabier, azken inkesta batzuk adierazten dabenez, euskaldun gehienak zoriontsuak ei dira. Zer dinozu zuk?.

doinua: "nere gorputza dardarka daukat"
9 puntuetara luzatuta

Amuriza Inkesta horreik egingo dira
oso prezio merkean
hemen holako barririk ez da
joan dan aspaldi partean.
Ez dakit zelan agertu diran
horrek gaur nire atean
zoriona ta zoritxarra zan
kasila bana batean.
Igual jornala izango dabe
oso altura fuertean,
anaia batzuk lurpean,
beste batzuk bitartean
zoritxarrari ihes ezinik
hortxe dabiz jo ta kean,
danak leloak baldin badira
ni ez nago hoi en artean.

8,5-8,5-9-9-8-9

Ez pentsa gero arrazoi horrek
barrutik ez daustan urten
holako gauzak zabaldu dira
lehenao ta baita be aurten.
Zorionaren amesa ezin
leiteke guzurrez eten
baina hori egin dabenak
dagoz halako magia baten.
Euskadin hori ez dakit zelan
ia publika leiteken,
ez dago errez esaten,
hori zelan gerta daiken
baina egingo dogu modua
noz baiten eta non baiten,
gure Herri hau hilko balebe
zoriontsu piztu daiten.

9-9-9,5-9-8-8,5

IRENEO AJURIA

Gaia: neguko lehen edurra.

doinua: gai horrek badu mamia

Ireneo Mendi gainean kapela
 zuri duzu egina
 neguan gauza bat ez da
 besterikan berdina.
 Ifarra dator honuntza
 bera da haize fina
 menderik mende hola da
 neguaren ekina.
 Zuri begira jarrita
 zer gauza atsegina!
 nahiago nuen honera
 lehenao heldu bazina. (bitan)

8-8-8-7,5-7-7

Elur zuria daukagu
mendi tontor gainetan
gizonak hotzak sentitzen
gorputz edo oinetan.
Baina aurrerantza zoaz
beti zeure lanetan
ni asko sartuta nago
negu beltzan gauzetan,
egun denetan naukazu
zurekin amesetan,
neguko lore zuria
maite zaitut benetan. (bitan)

8,5-8,5-7,5-7,5-6,5-7

JON ENBEITA

Gaia: hamahiru urte falta dirala, zelan ikusten dozu hogeitabatgarren gizaldia?.

doinua: historiaren hari zahar hori

Jon Enbeita Milatik gora bederatzirehun
larogetazazpi aurton
bukatzera doa berton,
bere kolkoan daramatzala
mila gauza txar eta on. (bitan)
Urtero dugu urte berrian
hamaika ames itxaron
hain gutxi digute emon!
ta orain gaude gizaldiari
begira bertan zer dagon,
gaurtik lanean egin behar da
eta ez begira egon. (bitan)

8,5-8,5-8-8,5-8-9

Amesak beti beharko doguz
besten eskutan ezarri
justizi baten egarri,
ta beti gaude inoren menpe
ez geure lur ta ez harri. (bitan)
Etsaiak goitik golpatzen gaitu
ta geu muturka elkarri,
etorkizuna helbarri,
zer izango den galdetzen duzu
guretzat gizaldi berri,
denon artean egin dezagun
askatasuna ekarri. (bitan)

9-8-9-8-7,5-7,5

JON LOPATEGI

Gaia: Bilboko Gran Vian dagoan gaztaina saltzaileari.

doinua: "nere gorputza dardarka daukat"

9 puntutara luzatuta

J. Lopategi Ordena bako gizona naiz ni
neure izatetik berez
eta Bilbora gaur etorria
pentsamentu alegerez.
Neure barrua asetu barik
goizeko gosari ederrez
orain tripa hauek kirrin kirrinka
agertzen dira haserrez.
Horrexegaitik nator zugana
gaztain saltzailea legez,
zerbait dozunaren fedez,
nola joan orain ihes,
zerbait barrura sartzea zelan
egiten dodan nik ames,
ahalbait arinen dozenatxo bat
ekarridazu mesedez.

9-9,5-9-9-8,5-8,5

Gaztaina batzuk bero berorik
eta beste batzuk gordin
nik dadukadan apetitoaz
gaur guztiak dira berdin.
Dana iluna ikusten neban
jaten hasi eta urdin
saltzaile pobre bat zaitugu zu
baina ez zabiltza erkin,
behar dunari emon gurarik
erretzen ekin ta ekin.
Zu zaitut neure atsegin,
lehen baneban nahiko samin,
beste dozena eder bat ere
emon egidazu arin,
Arriagako bertso saiora
adoretsu joan nadin.

9-9,5-9,5-9-8,5-8,5

JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

Gaia: bankuko zure kontu korrentean, ustegabeen ehun miloi agertu dira.

doinua: gai horrek badu mamia

Elgetzu Bostehun ta hiru pezeta
nituan hor lehenago
hartzera joan naiz hoi
preman ni bait nago.
Eta deskuidoren bat
izan al degu edo
nere beharkizun hoiek
gaur dirade akabo.
Ames onak egin ditut
eta diruz gorago
arren deskuidoren bat
ez al degu izango?(bitan)

8-8-7,5-8-6,5-6,5

Hoiek hor uzteko ez det
egin hainbat meritu
aiton zaharren batek sobra
ta bertan utzi ditu.
Bankeroak esan du ta
nik ezin nun aditu,
negar hala barre egin,
hainbeste naiz harritu!
hartu ditut diru hoiek
ezin naiz errenditu,
Euskal Herrian badago
nun ta nola partitu.(bitan)

8,5-8,5-8,5-9-8-8

JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

Gaia: goizean jaiki eta izpilu aurrean jarri zara. Kanta egiozuz bi bertso izpiluan ikusten dozunari.

doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Areitio Ez naiz gaztea ez zaharra,
piskat arpegiz baldarra,
baina horgatik ez zait irtetzen
neri ez negarra.
Ai nere izpilu bakarra!
bistan dadukat dardarra,
estuasuna Arriagara
gaur joan beharra. (bitan)

8-7,5-8-6,5-7-8

Izpilua beti egiz
ikusi det nere begiz
goiz honetan agertu naiz ni
triste ta izerdiz.
Bertsolariak hola gabiz
baina sarritan gu bagiz* *bagabiz
iluntzean ni etortzean be
ikusiko't berriz.

6-6,5-6-5,5-6-6

JON AZPILLAGA

Gaia: Esaiguzu zer esango zeunken biharko periodikoan.

doinua: nere gorputza dardarka daukat

Azpillaga Periodikoa binar argira
azaldutzeko barria
denen gainetik izan leiteke
egi ikaragarria.
Bertso saioan pasa nuela
beldurra eta larria
baina halare han izan zala
Euskadiren oinarria.
Hainbeste jende Arriagara
bertsotara etorria
ta Arriagan izan gendula
jardin eder bat jarria
oraindik ere indar haundian
dagola gure Herria.

8,5-8,5-8-8-7,5-8

Arriagako antzoki eder hau
lore ederrez jantzia
pozez beterik pasa zuela
han hurbildu zan guzia.
Aspaldi ikusi gabekoa
ere franko ikusia
Bertsota gendun hilan hogeiko
eginkizun nagusia.
Handik ertenda hau izan zala
jendearen iritxia
danak euskera egiten zuten
gure hizkuntza bitxia
gutxienean badadukala
mila urteko bizia.

9-8-8-8,5-8-7,5

IV

HAMARREKO TXIKIAN

HIRUNA BERTSO

HARITZ ETA JON LOPATEGI

Gaia: Zu Haritz, musturreko bat hartuta, lona gainean ahozpez jausita zagozala, Jon hau "tongo tongo" oihuka dago publiko artean".

doinua:Espainian *behera*

Haritz Hemen lonan etzunda
 neu nago bakarra
 hasieratik galdu
 dot nire indarra.
 Kontrarioak berriz
 sua eta garra
 hortik tongo entzutea
 ez da gauza edarra
 kristonak hartu eta
 hori entzun beharra. (bitan)

7,5-8-7,5-8-8-9

J. Lopategi Berriro tongo tongo
 behar dozu a'itu
 zutaz lehenago ere
 bazen nahiko aipu.
 Burrukan hasi eta
 bebingoan gogaitu
 zutitu zaite barriz
 hau ez da amaitu
 hain errez erortzeko
 nork erosi zaitu? (bitan)

9-9-9-8,5-9-9

Haritz Kontrarioak gogor
dauka atakea
hauxe da nire mina
ta nire nekea.
Hemen atara dizkit
sua eta kea
golpeak hartzen egon
behar izatea
ez da gauza gozoa
tongo egitea. (bitan)

6,5-7-7-6-7-7,5

J. Lopategi Dirua galtzen dot nik
barrua su ta gar
nire emazte gaixoak
egingo du negar.
Zurekin ez dot izan
gaurkoz suberte lar
itxuraz izanikan
haundi eta edar
lehenbiziko kolpetan
ez da jausi behar. (bitan)

8,5-8-7,5-8-8-8

Haritz Berehala amaitu
da gure burruka
egia esateko
ez naiz bildurtuta.
Tongoa egin dot bai
ezin neinke uka
baina ni orain nago
oso lasaituta
gero miloi pare bat
hartuko ditut ta. (bitan)

8-8-7-7,5-7,5-8

J. Lopategi Neuk be irabaztea
sentituz antsia
pentsatu nuen hemen
daukat ganantzia.
Jokoak beti dauka
bere garrantzia
ta honen gizontasuna
albora utzia
Juezera sartuko
dautsut denuntzia. (bitan)

8-8-8-8-8-7,5

XABIER AMURIZA ETA

JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

Gaia: Xabier, zuk OTA deritzan tokian utzi dozu kotxea. Bukaerako ordua baino bost minutu beranduago heldu zara eta autoa gruari lotzen aurkitu dozu Elgetzu udaltzaina.

doinua: Anton eta Maria

Amuriza Bilbora etortzea
zer gauza petrala!
kotxea nun itxi be
istilu legala.
bost minutu goitikan
kotxea doala
ez nuen pentsatuko
sekulum sekula
Gorordoren morroiak
hain finak zirala. (bitan)

8,5-8,5-9-8-8-8,5

Elgetzu Morroitikan morroira
da diferentzia
ordu erdirako zuk
zendun lizentzia.
Palta txoferra eta
grua iritxia
ez pentsa Bilbon nola
nahi'zu ibiltzia?
bota mila duro ta
zeuretzat kotxia. (bitan)

7,5-7-8-7-7,5-8,5

Amuriza Honen aginpidea
hain dago gaur sendo!
baietz esango neuke
burutik banengo.
Mila duro eskatzea
ez dozu egin ondo
hau bai benetan jaunak
izan dala tongo
faltsoa zaralako
ez deutsu emongo. (bitan)

8,5-7-8-7-8-8

Elgetzu Gainera insultoa
bere errezuan
baina neu agintari
nago arazuan.
Hamaika aguantatzen
det egun osuan
ez uste ni nagonik
langintza gozuan
kotxea garajera
ta hau kalabozuan. (bitan)

7-6-7-7,5-7,5-7

Amuriza Lehen be hor egona naz
dakizun antzera
ez naz deskuidatuko
gerizan sartzera.
Kotxea eroaizu
kaletik kalera
nahi badozu adornutzat
Bellas Artesera
edo bestela salgai
Corte Inglesera. (bitan)

8-7,5-7-7-8-7

Elgetzu Beraz eman didazu
hainbeste aukera
eta portatuko naiz
nahi dudan antzera.
Nigana azaldu zera
edozer esatera
zeuk dinozuz lehen joan
zinan espetxera
barruan egoteko
zu hobe zera. (bitan)

6,5-7,5-8-7,5-8-7

IRENEO AJURIA ETA JUAN MARI AREITIO

Gaia: Ijito familia haundi bateko semea zara zu, Ireneo. Eta karroan zoazela jausi, eta ez Juan Mari, zure aita, eta ez besterik, ez dira konturatu bi egunetan zu falta izan zaranik".

doinua: hamalau heriotzarena

Ireneo Sinistutzea ere
asko zait kostatzen
nola zara zu aita
horrela portatzen.
Beti ibilko al zera
nerekin jostatzen?
hau pasatzea ere
neri zait tokatzen
askorik ez nauzu zuk
gaur afta maitatzen.

7-8-7-7-7-6

Areitio Nik asko maite zaitut
semetxo pil pila
baina hola gerta da ta
hola izan dedila.
Ijitoak gabiltza
holako koadrila
semea galdu eta
ez gara jun hila
bat galdu amen dugu
sekulako pila.

8-7,5-8-8-8-7,5

Ireneo Nere zoriona da
nahikoa elbarri
ta esan dozun gauza
nahiko lotsagarri. '
Antxinatik neutsun ni
aitatxo igarri
gehiago dakizu zuk
auzotako barri
horretarako haurrik
ez zazu ekarri.

8-7,5-7,5-7-6,5-8

Areitio Semetxo bat galtzea
danontzat kaltea
honek arrazoia du
ta hori da atakea.
Egia esango det
ta'ingo du* bakea *dogu
semeak hazten dogu
zelako nekea!
maite zaitugu eta
etorri zaitea.

7,5-6,5-7-6-6,5-6

Ireneo Ez nuke bizi gura
nik zure onduan
portatu zaralako
ijito moduan.
Nigaz zer gertako zan
pentsatzen nenguan
hotza nola dagoen
aurtengo neguan
ni sartu beharko naiz
hurrengo karruan.

7-6-7,5-6-6-7

Areitio Ijituek badugu
nahikoa delitu
orain zer egin dogun
guztiok begitu.
Baina geure dotrina
behar du jarraitu
ijito izaera
ez dedin amaitu
amak beste haurtxo bi
ekarriko ditu.

8,5-8-7-6,5-6,5-8

JON ENBEITA ETA JON AZPILLAGA

Gaia: Santo Tomasetan zuk, Jon Enbeita, medikuak, errejimenean daukazun Jon Azpillaga hau ohi dalako txorizo bokadiloa jaten topatu dozu txosna batean".

doinua: Anton eta Maria

Jort Enbeita Hau ez da kontsultara
bart etorri zena
edo azkar joan da
ekarri zun pena.
Ahaztu zaio nonbaiten
mediku ordena
lukainka jaten badu
gogo ta kemena
hau ote da laguna
nire errejimena? (bitan)

7,5-7,5-7,5-7-6,5-7,5

Azpillaga Atzo bildu ginaden
gaxo ta mediko
gizon zoztor petralak
ni ez nau begiko.
Txarrikiak jatea
kendua betiko
baina nik nola dedan
azido uriko
bokadilo batgaitik
ni ez banaiz hilko. (bitan)

8-7,5-7,5-7,5-6-7

Jon Enbeita Hau da bokadiloak
egiten dautsuna
bizia labur egin
lehen labur duzuna.
Aho bero zarala
gertatzen zaizuna
agur medikuari
kontsultan entzuna
ehun kilo haragi du
gramoko zentzuna. (bitan)

8-8,5-8,5-8,5-8-8

Azpillaga Horrek nere barririk
ez bait daki bate
mediko hoiek nitzat
gorroto daukate.
Lehen ere jardun naiz
aterikan ate
igual mesederako
edo igual kate
baina gozatu nahi det
bizi naizen arte. (bitan)

7,5-8-7,5-7,5-7,5-8

Jon Enbeita Alperrik medikuen
kontseju aparta
berriz be egingo zara
mutiko galanta.
Neuk behintzat kobratu det
behar zen soldata
eta jan nahi baduzu
kiloko bokata
galtzen ari zarana
zeure burua da ta. (bitan)

7-7-7,5-7-7-6,5

Azpillaga Erraturikan hartu
zenduen karrera
betenarior izan
behar zuen bera.
Baina gaur nik izan det
jateko aukera
ez naiz hilko ni boka-
dilo baten gera
rejimena egingo det
bihartik aurrera. (bitan)

6-6-6,5-6-5,5-6

GARTZELAKO LANA

-LEHEN PUNTUA

Aginik ez danean

turroia ugari

-HIRUNA BERTSO, GURA DAN NEURRI ETA DOINUAN

Gaia: Lehenengoz eskolara eroan eta bertan negarrez hasten jatzun semeari.

HARITZ LOPATEGI

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Haginik ez danean turroia ugari	
<i>Haritz</i>	jan ezin eta hasi beharko kantari. hagin barik otea* ezin gustau niri danak ditut soinean ta hemen agiri.	*egotea

6-5-6,5-5,5-5,5-5,5

GAIA

doinua: Ama birjina Erkudengoa

Haritz Eskolak dira ene semea
geroaren oinarriak
neure garaia izaten ziran
oso eskas ta urriak.
Ene semetxu ez e'izuz egin
horren negar mingarriak
hemen topauko dituzulako
zeure laguntxu barriak.

7,5-7-7-6,5-6-6

Hona ez zendula etorri nahi ta
negarrez pasatu gaba
nahiz eta orain tristerik egon
etorriko da algara.
Eskolan hasi beharra dago
ikasi egin gura bada
gero haunditan gizon jakintsu
ta jatorra izango zara.

7,5-7-7-6,5-6,5-6

Bere eskolara hurreratzean
ez da inor negarrez hasten
zeu be eskolan hasteko seme
bazendun egunen baten.
Baina lasaitu ez zaitut hemen
abandonaturik uzten
errekreoan etorriko naiz
zelan zagozen ikusten.

7-7,5-7-6,5-6-6,5

XABIER AMURIZA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

Puntua Haginik ez danean
turroia ugari

Amuriza hori egia badok
 etxera joan hadi.
Txanpana izango joat
gabonetan sari
turroi barik be bizi
leiteke kantari.

7,5-8-8-8,5-7,5-7

GAIA

doinua: itxaso hori dago zatarra

Amuriza Bide luzea eskolaraino
 ibilia naz neu be gaurdaino
 eta oraintxe nire umeak
 "eskola ez dot nahi" dino. (bitan)
Ez dago eskola baino
ondo pentsatu ezkino,
behar dozu orraitino.
Eskola zer dan konprenditzeko
txikia zara oindino
lehor malkoak ta egon zaite hor
ama etorri artino. (bitan)

8,5-9-8-8,5-7,5-7,5

Nire umeak pena damosta
bihotzeraino egin daust zazta
eta maisuak haurra etxera
eroateko esan dausta. (bitan)
Baina umetxo hau koska!
mundua erreza ezta,
ez e'in hainbeste protesta,
ikasi e'izu, egon zaitez hor,
nahiz ta malko batzuk kosta
eskola bako jendeak lehen be
Euskadin nahiko dagoz ta. (bitan)

9,5-9,5-5-8,5-9-9

Herri Eskolak izan genduzan
orain ohitura hori galdu zan
nire umea ikusten nago
neu egon nintzaden gisan. (bitan)
Aizu umea ez izan
kezkarik zure arnasan,
kontuak hartu daiguzan:
aitak ez eban aukera izan
danak enterau daitezkan
baina semea inusentea
danik ez daiela esan. (bitan)

9-9,5-8,5-9-8,5-9

IRENEO AJURIA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Haginik ez danean turroia ugari
<i>Ireneo</i>	horrelako gauza bat gertatzen zait neri. Aspaldi pasatzen dut jateko inbidi ez dogunean behar gehiegi agiri.

7-8-7-6-5,5-7

GAIA

doinua: aita izena kanta beharrak

<i>Ireneo</i>	Ene semetxo lau urtetara apur apurka heldu zara eskolaurrean negarrez zaude ez zazu hartu ikara. Maisuak eta zure adineko, aita, ama hemen gara ta ikasketak emango dizu gizon helduen patxada isildu eta beldurrik gabe sartu zaite ikastolara. (bitan)
---------------	---

7,5-7-7,5-7-6,5-7,5

Lehenengo egunez etorri zara
zuretzat ez da atsegin
beste batzuk be egiten dute
zuk egiten duzun berdin.
Baina bidea horixe duzu
seme behar dezu jakin
jolastu zazu etxe honetan,
liburuakin izan fin,
laister gizona e'ingo zaitue
eta negarrik ez egin. (bitan)

7,5-7,5-7-7,5-7-7,5

Pentsa egizu nolakoa den
maitasunaren indarra
iduritzen zaizu mundua gaur
duna eta bakarra.
baina begira ikastolara
zure biharko izarra
nahiz ta penetan aurkitzen zaren
duzu gelditu beharra
nik etxeruntza eramango det
semetxo zure negarra. (bitan)

8-8-8-8-8-8

JON ENBEITA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Haginik ez danean turroia ugari
<i>Jon Enbeita</i>	Herri hontan aspaldi hola gara ari. Langabezia dugu Herrian ugari turroitako ez zaio heldzen pobreaki.

4,5-4-6-4-5-5

GAIA

doinua: itxaso hori dago zatarra

<i>Jon Enbeita</i>	Gaur arte zendun zuk irriparra ta heldu zaizu gaur zoritxarra ezin dut hola malkoz ikusi nire etxeko izarra. (bitan) Zabaldu seme bularra, zuk badaukazu indarra danak goituteko garra, nahiz eta orain triste zagozen a'itzen dut zure negarra baina ikasi behar duenak dauka sufritu beharra. (bitan)
--------------------	---

9-8,5-9-7,5-8-8

Jaiotzez inor ez da zalduna
ta ikastea da e'in behar duna
jausika dugu egiten gure
bihar goizeko eguna. (bitan)
Ez utzi zure jarduna,
nahiz eta izan astuna,
gaur gora e'iten zaizuna
ikasketatik etorriko da
zuga aberastasuna
zeure eskuan dauka herriak
biharko etorkizuna. (bitan)

8,5-8,5-9-8,5-9-9

Ikusten zaitut seme leheria
garratza duzu gaur aldarria
aitaren hitza izan diteke
zuretzat gogaigarria. (bitan)
Begira duzu Herria,
itxaropentsu jarria,
kendu deiogun larria,
etorriko da zure eskutik
etorkizun pozgarria
zure negar hau bihurtuko da
Aberri honen irria. (bitan)

9,5-9-8,5-7,5-8-9

JON LOPATEGI

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntua</i>	Haginik ez danean turroia ugari
<i>J. Lopategi</i>	halan be egiten dogu hainbeste eskari. Gauza goxotik zelan ez dogun gehiegi inondik sobra balitz gaur ekarri neri.

8,5-8,5-8,5-8-7,5-8

doinua: 5

J. Lopategi Ene umea lehenengo aldiz
gaur eskolara hasia
zuk ezin dozu ondo ulertu
aitak dadukan auzia.
Gizon jakintsu izan zaitela
baita nire gutizia
oso estua izaten dogu
ezjakinaren hesia,
eta gainera etorten jako
etsai danen malezi.
Horrexegaitik eskeintzen dautsut
nik eskolaren grazia
horrek ez dauka inun galtzerik,
dana da irabazia,
hau da aukera berezia
aberasteko bizia,
eskola bidez lortuko dozu
gero nahi dozun guzia.

10-10-10-10-9,5-9,5

Beharrezkoa dudarik gabe
da eskola gizartean
hori gerora azalduko da
haurra zeure izatean.
Aitak zu zelan hona ekarri
ez balitz borondatean
badakit nik zer ondorio dan
maisuengana joatean;
gu ere bardin ibiltzen ginan
banaka edo katean
denbora askorik ez nintzan joan
hori zen neure kaltean.
Ene semea ez zaite jarri
aukera honen apartean,
ikasi bete betean,
ahalegin eta nekean,
ez egidazu negarrik egin
gaur jakintzaren atean.

9,5-9,5-10-9-9,5-10

Eskola hori publikoa da
hala jarri dabe moda
jende guztiak erabiltzeko
hemen ta hemendik kanpora.
Haur guztiak lez pasatu bertan
behar den hainbat denbora
bildurrez zagoz ume maitea
baina egizu aproba,
aitak dinona egia bada
zihurtatzeko asmora
orain ez zatoz toki hontara
dirudienez gustora,
ze gauz ona dan jakingo dozu
ta momentuz ez aztora,
zu zara Herriko lora
ta jaso bihotza gora
zure jakintzaz egunen baten
gure Herri hau salbako da.

10-10-9,5-10-9,5-10

JOSE LUIS MUGERZA "ELGETZU"

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntea</i>	Haginik ez danean
	turroia ugari
<i>Elgetzu</i>	hori gertatzen zafo
	gure Herriari.
	Heldu nahiean gabiltz
	daukagun nahiari
	askatasuna palta
	begira berari.

7,5-5-6-6-7-5,5

GAIA

doinua: cita izena kanta beharrak

<i>Elgetzu</i>	Holako gauzak ekartzen ditu
	bizimoduko jokuak
	hautxo maitea zuk badaukazu
	orain momentu estuak.
	Baztertu behar olgetak eta
	baserriko sutonduak
	ikastolan zu egongo zera
	eginaz lagun hurkuak
	hemen txarrikan ez daukazu ta
	arren lehortu malkuak. (bitan)

8-7-7-7,5-7-7,5

Nik eskolara ekarri zaitut
haurra jakintza hartzera
gero mundean ibiltzeko zu
beste batzuen antzera.
Une honetan badakit haurra
penan beterikan zera
baina egunak joan ta lasai
jarriko zera luzera
damurik ez duzu zuk izango
eskolatutzen bazera. (bitan)

7-5,5-6,5-6-7-7.5

Aita sekula ez dezu izan
eskola haundien jabe
baserritarren kultura beti
izan det nik neure habe.
Baina eskola hartzen badezu
haurra zeuretzako hobe
mundu honetan ibiltzearren
beste gehientsunen pare
bizimodua eramateko
gorputzik apurtu gabe. (bitan)

8-8-8-8-7,5-9

JUAN MARI AREITIO "GAZTELU"

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

<i>Puntea</i>	Haginik ez danean turroia ugari
<i>Areitio</i>	hemen zer gertatzen dan da ondo nabari. Ez dakit zer gertatzen zaien besteeri baina hori sarritan pasatu zait neri.

7-7-6,5-6,5-7-6,5

GAIA

doinua.haurtxo txikia negarrez dago

Areitio Ume denbora polita eta
 itsusia da munduan
 nere semea gaur eskolara
 daramat nere onduan.
 Sufritutzen det ikusirikan
 zembat negar egin duan
 neu eskolara joan nintzen egun
 hura dadukat goguan.

8-6-7-7-8-7

Eskolako ate zahar haietan
zenbat negar ta karrasi
eskolara joan beharrak bazun
neretzat nahiko desgrazi.
Nik erderarik bate ez nekien
bakar bakarrik no ta si
ta gero ere Cara Sol besteik
ezer ez nuan ikasi.

8,5-8,5-7-6,5-8-8

Aizu semetxo arrazoi dezu
baina hau da desgrazia
zu hor pasatzen zauden trantzea
ni ere nago pasia.
Baina ikasteak mundu honetan
badu bere garrantzia
eta arretaz ikasi zazu
ikasi ahal dan guzia.

8,5-7-7,5-8-7,5-8

JON AZPILLAGA

LEHEN PUNTUA

doinua: xarmangarria zera

Puntua Haginik ez danean
 turroia ugari
Azpillaga gauza hori pasatzen
 lehenotik da ari.
 Ezin lezaken gauza
 baldin hada sari
 badaezbadan heldu
 turroi bigunari.

6,5-7-7-7,5-7-8

GAIA

doinua: bi egun dira ireki zala

Azpillaga Seme maitea kontatu behar
gertatu jatsu kasuan
gaur eskolara triste eroan dot
lepuan eta puasuan.
Gero negarrez nun hasi jatan
hain era lastimosuan
pentsatu seme zure aitak be
bardin bardin egin zuan.

7,5-7-7,5-7,5-7,5-6

Seme maitea eskolatzea
ez dozu zure kalteko
ikasi eta gero munduan
kontsejuak emateko.
Zure burua jakinduriaz
ez ete doga beteko?
eskola joan beharra dago
gero zerbait izateko.

8 7-7,5-7,5-6,5-7

Mutil gaiztoak ibiltzen dira
eskolatikan kanpuan
horixegatik zuk eskolara
zintzo behar dozu juan.
Negarrez triste aurkitu arren
normala da hori gaurkuan
damu haundirik ez dozu izango
haundia hasitakuan.

8-6,5-8-7,5-7-7

AZKEN AGURRAK

doinua: sekulan ez da sartu izandu

Haritz Hainbeste bertso kantatu doguz
edo lehor edo samur
baita ere hor atzean edan
hainbeste basokada ur.
Amaitu dira hainbat istura,
larrialdi eta bildur
txapeldunari zorionak ta
zueri bihotzez agur.

doinua: gau eder batek ninduen

Amuriza Uste barik izaten da
nahikoa une grabea
amaitzean hanketara
dator debilidadea.
Hiru orduko ekitaldi hau
ez dok izan suabea
baina nozbaiten amaitu da ta
hau dok trankilidadea.

doinua: gau eder batek ninduen

Ireneo Burua nun erdi ilun
nahiz ta bihotza zabala
badakizute entzule
hau brometako ez dala.
Baina halaere saiatsu gera
denok ahal gendun bezala
orain Bizkaiko Txapel haundia
onenak jantzi dezala.

doinua: bizia ez da nehoiz egoiten

Jon Enbeita Min eta poza nahastean ditut
bihotz barnean igeri
eta ea dakit bere taupadak
hitzetan nola ageri.
Besarkada bat biziei eta
oroitapen bat hileri
oindik bidea luzea dugu
ta ezin gera eseri
ahal dan ondoen gabonak pasa
eskerrik asko deneri. (bitan)

doinua: euskaldun bi andre zaretenoi

J. Lopategi Hemendik irrintzi ta estutasun,
hortik txalo ta algara
niretzat gaurko pozgarriena
Haritzek eukan patxada.
Ongi etorri seme maitea
zure aitaren trintxerara
itxaropenen txapeldun behintzat
egun honetan zeu zara.

doinua: Uso zuria erraxu

Elgetzu Bertsoa degu nonnahi te
Arriaga dugu hete (barriz)
Estu ginaden baina askatu
zaigu makina bat kate
eskerrik asko bertso zaleok
ondo portatu zerate. (bitan)

doinua: Egun lanerat abiatu zait

Areitio Amaitzean zer lasaitasuna
ez daukagu esaterik
parka zazute norbaiti hemen
egin badiot kalterik.
Txapelketa hau bukatu da ta
danok gaz* pozez beterik *gagoz
segi aurrera ta eskerrik asko
ezin det esan besterik.

doinuo,: gau eder batek ninduen

Azpillaga Zer ederra gorde duen
Arriagako ateak!
ez du gutxi balio ez
horren pozez egoteak!
Agindutako arazo denak
izan ditugu beteak
portau zarete, eskerrik asko,
agur entzule maiteak.

BERNARDO M.

Eta honenbestez estutasunak amaitu dira, egin beharrekoak eginak dira eta hemendik aurrerakoentzat hartu daigun ordena apur bat azkar egiteko.

Ezer baino lehen, Txapelketa honetan parte hartu dozuen bertsolari guztiok, mesedez, ahalik eta azkarren hurbiltzen joan oroigarri bat hartuko dozue eta. Hori egiten dogun bitartean, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko Lehendakaria dan Imanol Lazkanori, eskatuko neuskio ager daítela honantza, hiztxo batzuk esan deiskuzan.

Imanol Lazkano: "Lehenik egunon, eta azaldu edo aitortu, gaur, doluminetan dagon sendi honi, bihotz bihotzean degula. Eta bigarren, Txapelketa honetan parte hartu duten, esku hartu duten bertsolari guztiei, zorionak. Zorionik beroenak zeren, zuetako inor galtzaile izan gabe, egitazko irabaztuna, egiazko txapelduna Bertsolaritza gertatu delako.

Horregatik, nik uste det, eta guk uste degu, Euskal Herriko Bertsolari Elkartea harro izateko aina bertsolari ba degula une honetan, Bizkaiko bertsozale purrukatu hauen lanari esker, Bizkaiko Foru Aldundiak eman digun babesari esker, Txapelketa mardul hau montatu dan eran, antolatu dan eran, antolatu degulako.

Eta nola ez, eskerrik asko, eta zorionak baita ere, Antzoki bikain hau bete dezuten entzule guzieri, eta ez gutxiago, gaur eguerdi osoz, belarria erne dutela, irratietan ditugun beste hainbat eta hainbat entzule jatorri.

Haien babesa eta haien berorik gabe, bertsolariok, korrikari hankamotz edo pelotari besamotz bezala bait gera, eta nik une honetan, Euskal Herriko bertsolari guztien izenean zin dagizuet, zuek babes hori eskeintzen diguzuten bitartean, euskeraren bizigarri dan Bertsolaritzako kurpil honi eragiten saiatuko gerala.

doinua: xarmangarria zera

Hau da gure batzarra,
hau da gure jaia
sendi giro batean
hoinbeste anaia.
Euskaldunak batzeko
ez al zan garaia?
gora Bertsolaritza
ta gora Bizkaia."

PUNTUAKETA

Txapelketan parte hartu dozuen bertsolariei opari bat eskeiniko deutsuegu. Opari hau, album bat da, Araba Bizkaiko Bertsolari Txapelketa honek duen historian zehar ataratako argazki batzuz osatuz. Bertan izango dozue bakotxaren argazkia bere, eta oraindino atara barik dagoan, eta hau amaitu eta gero hor kanpoan atarako dogun bertsolari guztiena.

Eta zenbakien azken momentua heltzen dan bitartean, aipatu bakarrik, irabazleari txapela, Euskaltzaindiaren izenean, Alfontso Irigoienek jarriko deutsola, eta garaikurra Ina Etxebarriak emon, Bizkaiko Foru Aldundiarenean. Txapeldunordeari, garaikurra, Jose R. Peciñak emongo deutso, Arabako aldundiaren partez. Kantatu daben ordenean esango ditut bakotxaren puntuak:

Haritz Lopategik	601	puntu
Xabier Amurizak	722	puntu
Ireneo Ajuriak	637,5	puntu
Jon Enbeitak	680	puntu
Jon Lopategik	774	puntu
Elgetzuk	663	puntu
Juan M. Areitiok	630,5	puntu
Jon Azpillagak	650	puntu

Beraz, zortzigarren Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Txapelduna Jon Lopategi eta Txapeldunordea Xabier Amuriza.

Alfontso Irigoienek iminiko deutso txapela eta bertsotxo bat eskeini ere:

doinua. gure etxean hasarre daude

Lopategi zu nagusi legez
lehendikan unen ezagun
Bizkai aldean hirutan behintzat
Txapela irabazi zendun.
Orain Bizkaian ta Araban nola
Txapelketa egin dugun
eginik zaude Arriesga honetan
bertsolarien txapeldun.

Eta azken agurra Txapeldun barriaren eskutik.

doinua: zeru altuan zegoean Jaunak

Jon Lopategi Lehenengo ta behin anai arrebak
milaka esker danori
goizean goizik etorri eta
ez ginan aurkitzen nagi.
Baina etxetik bi heldu gara
aita ez zan bakarrik ari
seme maitea, hartu txapel hau
eta eroan amari.

Eta besterik ez, hoberik bada, hurrengoan beharko. Ondo segi. Agur.

